



ARGIA

ABIATUKO DA INDEPENDENTZIA EUSKAL HERRIAN?

XABIER BARANDIARAN / JULE GOIKOETXEA



» EUSKALTZALEEK MEZUA NAFARROAKO GOBERNUARI: NEURRI AUSARTAK BEHINGOZ

» OSASUNA ETA ERRAUSKETA: BONBA TOXIKO BAT ZUBIETAN

» MFSST: PUNKA FEMINISTA IZANGO DA EDO EZ DA IZANGO



ASTEAZKENERO ARGIAN IKUSGAI

TXOMINISTAK



KOMINISTAK
AK BAT



NAROA
MIKELARENA



JON ANDER
ALONSO



EDURNE
AZKARATE



EÑAUT
GANTXEGI

ENERITZ ARZALLUS · LANDER ARRETXEA · MIKEL FERNANDEZ · UNAI GAZTELUMENDI · PERU ISASI · BEÑAT ITURRIOZ · ANE LUSARRETA · KEPA MATXAIN · MIKEL ROMAN · LAIDA ZABALA



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Asier Blas
- 20 Jose Inazio Basterretxea
- 21 Karlos Gorrindo
Oihana Etxebarrieta



Ekainaren 4an manifestazioa egingo du Kontseiluak Iruñean, nafar gobernu berriari euskararen babesaren bidean jarrai dezan pauso gehiago eskatzeko.

- 40 BIZI BARATZEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
ALEJANDRO CAO DE BENÓS
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Koldo Murua, abeltzaina: "Behiak ematen duen dirua, behiarentzat da" / Miel A. Elustondo
- 22 | Eztabaida: Ba al da independentziarako baldintzarik Euskal Herrian? / Xabier Letona
- 28 | Paul Bilbao: "UPNk erabiltzen duen argudio berbera erabili du Izquierda-Ezkerrak" / Onintza Irureta Azkune
- 30 | Aldaketa txikiak Nafarroako euskalgintzaren patriketan / Xabier Letona
- 32 | Zubietako errauskailuaren orbana gure osasunean / Urko Apaolaza Avila
- 36 | Ikastolako jolastokia amesten / Mikel Garcia Idiakes
- 38 | Eskola herritarrak eta parte-hartzaileak bultzatzen / Ane Urkola Agirrezabala
- 44 | MEFSST jaialdia. Punka ez hiltzeko, feminismoa txerto / Danele Sarriguarte Mochales
- 46 | Zer demontre egiten du argazki zuzendari batek? / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARU DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Urkola, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Frackaman vs Kañaeman

Gasteiz, maiatzaren 13ko iluntzea. Ezkerrean, Frackaman, zulatzaileen ordezkaria, Espainiako Konstituzio Auzitegiak EAEn frackingari aukerak zeharo murrizten zizkion legea bertan behera utzi izanaz pozarren. Eskuinean, berriz, Kañaeman, beren sinaduraz lege hori bultzatu zuten 103.000 herritarren izenean. Fracking Ez plataformak "borrokaldi" umoretsu honen bidez salatu zuen Espainiako Gobernuak "herri burujabetzari egindako eraso".

Argazkia: Jaizki Fontaneda Elguea



“Ez gara mediku onak ala euskaldunak, mediku on eta euskaldunak baizik”

EHUko Medikuntzako ikasleak, graduazio ekitaldian

argia.eus/multimedia



Ikasi eta bizitakoa ez duzu ahaztuko

Opor ahaztezinak igaro dituzte euskaltegi ibiltariko protagonistek. Ikasitakoa praktikan jarri eta 24 orduz euskaraz bizitza lortzen dute.



“Autokritika ez da damutzea, presoak horretaz biziki urrun dira”

Lepogorra liburua idatzi du Gabi Mouesca euskal preso politikoa ohiak espetxeaz, bake prozesuaz, etorkizunaz...



Nuit Debout mugimendua Parisko Errepublika plaza okupatzen, lan erreformaren aurkako protestan.

Lan erreforma dekretuz onartu nahi du Manuel Vallsek

Iker Oñate Aiastrui

@iker_onate

Ezohiko ministroen kontseiluak baimena eman du Frantziako Gobernuak ezarri nahi duen lan erreforma dekretuz onartzeko, Asanblada Nazionalaren bozkaketa saihestuz. Lan erreformak aurkari asko ditu eta hortik etorri da aldebakarreko erabakia. PSko sektore ezkertiarrena ere ez dago oso kontent erreformarekin, eta parlamentuko gehiengoak ez du lan erreforma babesten. Testuaren bigarren artikulua da polemika gehien piztu duena: hitzarmen kolektiboen gainetik jartzen ditu enpresen hitzarmenak.

Erreforma dekretuz onartzeko Frantziako Konstituzioaren 49.3 artikulua erabili du Manuel Valls lehen ministroak: 48 orduko epean zentsura moziorik aurkeztu ezean –oposizioak zentsura mozioa aurkeztu du,

baina gainditu egin du Vallsek–, bozketarik gabe onartu dezake legea. Gobernuak 2015ean erabili zuen azkeneko artikulua hori, Emmanien Macron Ekonomia ministroak bultzaturiko Macron legea onartzeko.

Senatura igaro da erreforma. Ganbera horretan eskuina da nagusi eta orain arte lan erreformaren aurrean izan duen jarrera ikusirik, litekeena da aldaketa batzuk egitea. Hala balitz, Asanblea Nazionalera itzuliko litzateke erreforma proposamena. Vallsek bigarrenez erabili beharko luke Konstituzioaren 49.3 artikulua.

Gizarte sektore ugariaren ezinegona eragin du eta erreforma proposamenaren aurkako mugimenduak sortu dira azken hilabeteetan, Nuit Debout ezagunena. Ipar Euskal Herrian ere protestan ari dira erreformaren aurka eta besteak beste, Arrangoitzeko ETPM enpresa blokeatu du Jusqu’au Retrait kolektiboak.

“Herritarrak isilarazi eta beldurtzea da aroztegia bultzatzen duen enpresaren helburua”

AROZTEGIA... ETA GERO ZER? PLATAFORMAKO KIDEAK

Palacio de Arozteguia S.L. enpresak 50.000 euroko kalte ordaina eskatu die aroztegiaren aurkako plataformako 7 kideri, “prentsurreko batean parte hartzeagatik”, salatu dute plataformatik. Proiektu urbanistikoa “espekulatzaileri” buruz duten iritzia ematerik ez du nahi enpresak, diote. “Dirudunak direnez, komunikabide hegemonikoak erabil ditzakete bozgorailu bezala”. Baina adierazi dute ezingo dutela geldiarazi abiatu duten herri galdeketa prozedura. (2016/05/10)




Gero eta gizenagoak

19 milioi lagun eta 186 herrialde kontuan hartu dituen ikerketa baten arabera, 18 urtetik gorako **650 milioi obeso** dago munduan. Alegia, populazioaren **%13**.

Estrapolazioak betez gero, **2030ean** populazioaren **laurena** gizenegia izango da.

Drain dela 40 urte, pisu eskasia obesitatea baino bi aldiz handiagoa zen. Egun, obesoak gehiago dira pisu eskasekoak baino.



GORPUTZ MASAREN INDIZEA =

$$\frac{\text{PISUA}}{\text{ALTUERA}^2}$$

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, masaren indizean 30 kg/m² gainditzen duena da obeso. 35etik gorakoa, obesitate latza da.


5 urtetik beherako 41 milioi haur obeso dago munduan.

1990	2014
% 4,8	% 6,1



Obeso guztien bostena sei herrialde anglofono aberatsetan bizi da (AEB, Erresuma Batua, Australia, Kanada, Irlanda eta Zeelanda Berria): 118 milioi lagun. Horien artetik %27k, alegia 50 milioi lagunek, obesitate latza dute.

Polinesiar eta Mikronesiar, gizonezkoen %38 eta emakumezkoen erdiak obesoak dira.



Kutxabank ikasgeletan. Nork ireki dio azeriari oilategiko atea?

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

EH Bilduk mahaigaineratu du gaia, Eusko Legebiltzarrean Hezkuntza Sailari eskatutako informazioaren harira. Jendea etxetik kaleratzen errege, klausula abusiboekin eta preferenteekin herritarrak itotzen aritua, bezeroei neurritz kanpoko komisiok kobratzeagatik salatua eta iruzur egiteagatik epaitegietan kondenatua, Kutxabank alegia, finantza ikastaroak ematen ari da ikastetxe publiko eta kontzertatueta. Altruismoaren haizeak jo du eta iruzur horiek nola saihestu irakatsi nahi die bat-batean gaztetxoiei, ala etorkizuneko bezeroak lotzea eta bankuen inguruan eraikitako kontsumismo eta ekonomia eredu jakin bat txikitatit barneratzea du helburu? Eta batez ere, nolatan ireki dizkiete parez pare eskolako atearik interes pribatuak dituen erakunde honi?

Pagotxa da Kutxabankentzat: gaztetxoaren artean konfiantza eta fideltasuna sortu eta aurrezki kontua irekitzen dutenean bere sukurtsaletan egitea lortu dezake batetik; eta edukien kontrola bermatu dezake bestetik, nahi duena irakatsiz, eta nahi ez duena ez. Logikoagoa litzateke ikuspegi zabalagoa eman dezakeen –esaterako bankuek diruarekin egiten dutenaz, banku etikoez, alternatibez... ere hitz egingo duen– Ekonomia irakasle bat ar-

duratzea ikastaroaz, eta ez interes pribatuei erantzuten dien banku bat.

Ikastaroa bi saio dira guztira eta *Finantzak bizitzarako* du izena. Saio horietako batean izan da ETB eta bertan erakutsi zaigunaren arabera, abiapuntua da “zure bizitzako ilusioa lortzea”, adibidez, ikasleei entzun diegunez, ziklomotorea erostea edota mugikorra zortzi hilabetetan erostea. Ilusioa egia bihurtzeko –dirua lortzeko– bideak aztertu dituzte ondoren, eta bankutxeko ordezkariarentzat saioaren ondorio inportanteetako bat da “aurrezki kutxan dagoen dirua ez ukitzea”. Gazteetako batek dioenez, “libretan dagoen dirua hor uztea eta zuk irabaztea” baita helburua.

Jaurlaritzari galdera

Ikasturte honetan, Kutxabanken ikastarotatik 14-16 urteko 1.700 ikasle inguruk parte hartzea da asmoa. EAEko hainbat ikastetxe publiko eta kontzertatutako ari dira, eta EH Bilduk adierazi du ikastaroa kentzeko ahaleginak egingo dituztela. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari galdera ere egin diote saio hauen iturburua ezagutzeko, eta jakiteko, adibidez, ea ikastetxeek bankutxearekin zuzenean lotutako ekimena den, ala administrazioak zerikusirik duen.

Martxa honetan, noizko Mc Donald's elikadura burujabetzaz ikasgelan? Farmazeutikak osasunaz? Petronor inguru-menaz?...

EKONOMIAREN TALAIAN

Espainiako Estatuak, Troikaren esklabo



Juan Mari Arregi

Espainiako Kanpo Harremanetarako ministroak dio “austeritatearekin pasa” egin direla. Orain erraza da esatea, Troiak berak onartu baitzuen, eta Espainiako Estatuak haren morroia da. Europako Banku Zentralak, Europako Batzordeak eta Nazioarteko Diru Funtsak osaturik, Troiak bere helburu ekonomikoak bete ditu, baina kostu sozial ikaragarria eraginez. Horixe da Europako hainbat txosten ofizialetan ageri den ondorioetako bat. Zor subiranoa ez ordaintzea eragotzi dute, baita defizit mugaren helburuak betetzea ere, eta Espainiako banku sistemarengan konfiantza berreskuratzea lortu dute. Erreskate horren kostu soziala, aldiz, “gehiegizkoa eta zoritxarrekoa” izan da, azaldu dute zinikoki. Txosten horietan “atsekabea” agertu dute: osasungintzan murrizketak izan direlako, diru-sarreraren banaketan desoreka eragin duelako eta pobrezia izugarri handitu eta etxegabetzeen olatu bat egon delako, baita inbertitzaile txikiak kaltetuak izan direlako ere.

Orain, Troiak Espainiari exigitu dio beste 9.000 milioi euro murrizteko, eta beti bezala langile eta herritarren bizkar izango da. Egungo kapitalismoaren interesen kudeatzaile den neurrian, banku eta multinazional handiak ordezkatzeko dituen Troiak barre egiten du herritarren kontura, basakeria sozial berarekin ari den bitartean. Davoseko mundu foro kapitalistan zenbaitek ohartarazi zuen doikuntza politikek ezegonkortasun soziala areagotu zezaketela (grebak, manifestazioak, okupazioak...). Baina badakite erresistentzia eskasa eta isolatua dela oraingoan. Harresi antikapitalista indartsu eta solidarioa parean aurkitzen ez duten bitartean, jarraituko dute euren politika antisozialekin.

Erasoa 'El Jueves' aldizkariko zuzendariari

BARTZELONA. Europan azken urteotan mugimendu ultraeskuindarren eta neonazien berragerpena salatzen du azala argitaratu du *El Jueves* aldizkariak. Kaleratu eta segituan piztu du Twitter bidez: "Aste honetako azala! pd: Nazia bazara eta minduta bazaude, izorrai! Remember Stalingrado!". Argitaratu eta hurrengo goizean, Mayte Quilez zuzendariari eraso egin diote. Bartzelonako etxera sartzen ari zela, atarian zain zuen pertsona batek aurpegian ukabilkada eman eta ihes egin zuen. Poliziari helarazi dio salaketa Quilezek. Mehatxuak ez dira horretan geratu eta ugariak izan dira aldizkariak sare sozialen bitartez jaso dituen irainak. Kasuak elkartasun mezu andana ere eragin ditu.



Alfonso Alonso eta Javier Maroto, errudun

Arabako Alea

@ArabakoALEA

Espainiako Estatuko Kontu Auzitegiak 2003-2007 agintaldian Gasteizko Udal Gobernuaren osatu zuten 9 zinegotziak zigortu ditu, tartean alkate izandako Maroto eta Alonso, San Antonio kaleko lokalaren kontratuarekin interes orokorrari kalte egin ziotelako.

393.862 euro

Kontu Auzitegiak ebatzi du 2007an Gonzalo Antonekin sinatu zuten kontratuarekin hiriko diru publikoa kaltetu zutela eta 393.862 euro ordaintzera kondenatu ditu bederatzia.

Kontratu...

San Antonio kalean diren aipatutako lokalak 2007an erosi zituen Gonzalo Antonek 2,7 milioi euroren truke. 2007an Udalak harekin hitzartu zuen alokairu kontratuak 7,6 milioi euroko kostua izan zuen.

... eta baldintzak

Lokalak 20 urterako alokatu zituen Udalak eta kontratua ez eteteko hainbat klausula ere sinatu zituzten. Garai hartan, Alfonso Alonso Gasteizko alkatea zen eta Javier Maroto Ogasun zinegotzia.

KUTSADURA



100.000

tona kautxuzko gurpil dira, hainbat iturriren arabera, erretzen ari direnak Seseñako pneumatiko biltegian (Gaztela Mantxan). Biltegia (Europako handiena) legez kanpokoan zen. Suteak kutsagai larriak aineratu ditu.

39.500

tona pneumatiko erretzeko baimena du Donostiako Rezolak.



FRESNESEKO PRESOEK GOSE GREBA

Fresneseko espetxean dauden euskal preso politikoez gose greba hasi zuten maiatzaren 9an, Itziar Moreno kideak jasaten duen isolamendua salatzen. Bizi baldintzak hobetzeko protesta egin zuten emakumeen moduluan. Morenori protestaren "bultzatzaile nagusia" izatea leporatu zioten eta isolamenduan sartu zuten.



ASKATASUNAREN BIDEA

Ezker abertzalearen baitan Askatasunaren Bidea talde disidentea eratu dute, erakundearen estrategia berriaz "kezkatuta". 60-100 lagunek osaturiko taldeak maiatzaren 21ean egingo du aurkezpena, Bilbon.



'75 ORDU EUSKARAZ' AGURAINEN

Azaroaren 8tik 11ra esparru guztietan euskaraz aritzea izango dute eronka Agurainen. Ekimena ezagutzera eman eta konpromisoak batuko dituzte udazkena bitartean.

Zergatik ez da Biodonostiaren ikerketa Añorgako Rezolan abiatzen?



Xabier Letona

@xletona

MALLORCAN, Monzónen (Huesca), Córdoba, Florentzian, Corken (Irlanda), Txinan... dozenaka hiri eta milioika pertsona ari da munduan hondakinen errausketaren aurkako borrokan. Euskal Herrian ere bai, Gipuzkoako Diputazioak Zubietan eraiki nahi duen errauskailuaren aurka ari dira milaka herritar.

Erraustegi proiektua 2011n geldiarazi zuen EH Bilduk Gipuzkoako Diputaziora iritsi zenean. Harrez geroztik hondakinen eztabaida batez ere bilketa moldearen inguruan gauzatu da lurraldean, funtsean, atez ateko bilketa edo berdin jarraitzea. Bilketa moldea, azkenean, EH Bilduren foru gobernua egurtzeko erabili zuten Gipuzkoako botere faktikoek eta, EAJk eta PSEk. Gaiak –bilketak zein konplotak– jarraituko du ematen luzerako, baina orain berriz dator indar handiz Zubietako erraustegi proiektua.

Orain gertuago dago proiektua gauzatzeko aukera eta herritarren lehen mailako kezkek hartu du berriz ere leku nagusia eztabaidan: osasunak. Munduan dagoeneko ikerketa asko egin dira azken hamarkadatan errausketak pertsonen osasunean dituen eragin kaltegarriez, erraustegiak diren guneetako minbiziak eta beste gaitz asko nola ugaltzen diren argi erakutsiz. Horien aurrean ezer gutxi esan ahal dute agintariek, frogatuta daude eta. Orain miraria modernitatean eta zientzian dago, botereak herritarrei proiektu txikitzaile eta arriskutsuak saltzeko baliatzen dituen tresna ezinbestekoetan: “Lehen bazen arriskutsua, oraingo hauek erabat moderno eta seguruak dira”.

Herritar arduratsu gehienek, aldiz, gero eta argiago ikusten dute aire kutsaduraren arazoa. Hedabideak apur bat jarraitzen dituena ohartuta egongo da jada gero eta txosten gehiago dagoela arazo honen berri emanez. Zeharka



bada ere, errauskailua eraikitzearen aldekoek onartzen dute Zubietakoak ekar dezakeela arriskurik. Bestela, ez badago inongo arriskurik zertarako egin behar-ko litzaioke enkargua –iradoki den bezala– Biodonostiari, errauskailuak pertsonetan izango duen eragina azter dezan? Hau da, azterketa hipotesi honetan kontua halakoa litzateke: erraustegia egin, ikusi kalteak sortzen dituen eta... sortzen baditu zer? Akuri gisa erabilia izateko prest ote da herritarra? Zergatik ez da abiatzen Biodonostiaren ikerketa gaurdanik Añorgako Rezolan?

OSASUNAREN ikuspegitik ezin du izan defentsa argudio sendorik erraustegia osasunaren ikuspegitik defendatzeko 2004ko Osakidetza txosten batera jotzen duenak. Are gehiago honek dioenean errausketak ez duela “kalte esanguratsurik” osasunarentzat. Zer ote da kalte esanguratsua? Zergatik saiatzen dira behin eta berriz erraustegien isurtze datuak gutxitzeko sistemak asmatzen? Italiako Pietrasantako errauskailua

2010ean itxi zuten honek bere isurketa datuak faltsutu ondoren. Gogoangarria da nola kontaktzen zuen Alfonso Del Val teknikariak (Larrun 156. zkia) Madrilgo erraustegian datuak faltsutzeko egiten ziren trikimailuak. Volkswageneko autoen edo Fukushima zentral nuklearraren isurketen datu faltsutzeak ikusita, herritarrek gero eta konfiantza tarte txikiagoa dute halakoetan kontrol mailaz.

Pierre Vilar historialariak esaten zuen “historikoki pentsatu” behar zela gaur egungo arazoez jabetu eta hausnartzekoan. Ez dakit zilegi izango den “jasangarritasunez pentsatzea” esate errauskailua eta gasako makroproiektu suntsitzaileez jardutean; baina badakit Josep Fontana historialari katalanak arrazoi osoa duela “historikoki pentsatzearen” oinarrian ideia bat dagoela dioenean (Diagonal, maiatzak 16): “Ulertzea inondik inora onar ezin daitekeena amore ematea dela”. Zubietako erraustegiari buruz ere, azken minuturaino balio dezakeen ideia da. Bestek beste, osasunagatik. ■

ezinezkoa izan da ahal dugu - eh bildu koalizioa

HAIEK
INDEPENDENTISTAK
DIRA . . .

GU
aldiz,
INDEPENDENTEAK



SK

30 urte beranduago berriro gosete handia hedatzen ari da Etiopian



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Lehortea 2014an hasirik, hilabeteotan mundu osoan eragin duen *El Niñok* gosetean murgildu du dagoeneko Etiopiako hamar biztanletik bat, eskualde batzuetan jendeen erdia. Oraindik ez da zabaldu 1984ko argazki terrible haien antzekorik... baina alarmak piztuta daude. Populazioa kontrolik gabe handitzen eta lekuko nekazaritza errotik itxuraldatzen ari den Etiopian ari da gertatzen.

Elikadura krisi berriak oraingoz kontrolatu samarra dirudi Etiopian, telebistek ez baitigute erakutsi hezur eta azal hiltzearen diren ume eta emakumen irudiekin, duela 30 urte, 1984an, mundu aberatseko biztanleen errukia piztu zuten argazki beldurgarri haiek bezalakorik. Hala ere, karitatezko erakundeak abisatzen ari dira azken 50 urteotako lehorterik handiena daukatela Etiopian.

Ez dute uzta txukunik izan eskualde askotan, laboreak ereiteko modurik ere ez azken bi urteotan. Aziendetatik -ahantz zein gamelu- bizi diren abeltzainek ezin dituzte bazkatu belarrez, ez eta ase urez. Gose eta egarriak ugaritzen dituzte abereen eta jendeen eritasunak. Hamar milioi etiopiar baino gehiago bizi dira uneotan larrialdian, horietatik sei milioi gosea pasatzen.

Hailemariam Desalegn lehen ministroak laguntza deia egin die nazioarteko erakundeei, 1.400 milioi dolarreko asistentzia behar duela Etiopiak. Munduak dauzkan emergentzien artean hirugarren handiena da, gerra birrintzen ari den Siria eta Yemenek landa beste inork ez dauka hain behar latzik.

New Internationalist hedabidean Christian Aid GKEko Nicola Kellyk kontatu du idortek kiskalitako Yabelo eskualdean -Etiopia hegoaldean, Kenyarekiko mugatik 100 kilometrorara- herrietan ikusia eta entzuna. Adegalchat herriko buruzagi Sanouri galdetu dio ea zer egin duten egoerari egokitzeko: "Lehortearrekin denok sufritzen dugu berdintsu, izan

pobre edo aberats, eta berdin dio prestatuta zauden ala ez: euririk ez da iristen. Gure lurra lehortzen ari da, abereak gogotzen eta haurrak ahultzen".

Kula Taro Wariyok konbidatu ditu Kelly eta bere kideak etxolara, beste hogeitahirutarrekin katilu bana arroz jatera. "Euria egin izan duenean ere, dagoeneko ez du uzta ekartzen. Garai batean zaparrada handiak egiten zituen eta belarra hazten zen. Orain zelaiak berehala ihartzen dira", esan die atariko lur muturra erakutsiz.

Hurbil, Arero herrian, 21 urteko Tume Yarco Deedak diotse emakumeek bereziki sufritzen dutela: "Ura ekarri behar dugu, sutarako egurra bildu, familiari otorduak prantatu, haurrak zaindu... eta askoz lan gehiago. Lehortek esan nahi du urrunago joan behar dugula ur bila, batzuetan ordu luzez ibili behar dugu eguzkitan ontzi pisutsuen garrario. Baita haurdun daudenak ere. Ezagutu ditut ur garrario dabilzala erditu direnak, pentsa zein arriskutsua den".

All Africa hedabideak analisi batean azaltzen duenez, Etiopiak behar dituen jakien %90 bere lurraldean ekoizten ditu. Otorduetan garrantzia handia daukaten zerealei dagokienez, 2015eko uztan 23 milioi tona bildu zituen, eta ez zuen inportatu behar izan 1,2 milioi baino gehiago. Azken bi urteotan laboreek etekin gutxi eman duten arren, etiopiar gehienak moldatzen dira bizirauteko. Baina ia 100 milioiko populazioa edukirik, jendearen %15 gosez egoteak esan



nahi du 15 milioi daudela larri. 15 milioi Etiopia zabalean barreiatuak, horiei lagundu beharrik dakartzan logistika arazoekin.

Etiopiarren %83 bizi dira landa eremuetan, nork bere familiaren biziraupenerako nekazaritza soila eginez, baina klimaren aldaketak idortek ugaritu dituzte azken hamarkadotan lehen baino ahulago aurkitzen dira edozein arazoren aurrean eta elkarren arteko lehia handiagotzen da nork bere ura, lur muturra edo belazea eskuratu nahian.

Behartsuari lurra bera ere ostu

Azken 50 urteotan Etiopia pasa da 22,2 milioi biztanle edukitzetik 95,5 edukitzera. 1984ko azken gosete handitik 30 urte laburretan bikoiztu egin da Etiopiarren populazioa. Gainera, Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren errezetak zintzo konplutuz, nekazaritza industrial eta komertziala sustatu du Addis Abebako gobernuak eta horrek berak zaildu dizkie herritarrei krisi garaietako ihesbideak, dela aldi baterako emigrazioa, lekuz aldatzea bazka berri bila, eta abar.

Hego Sudanen eta beste krisi humanitario askotan nazioarteko erakunde eta GKEak diren bezala larrialdiko laguntza banatzen dutenak, Etiopiar gobernuak bere eskuz egiten du. Addis Abebako administrazioak helarazten du janaria, bidaltzen ur kamioiak, eta abar, arazoak detektatu eta artatzeko erabiliz osasun zerbitzuetako 38.000 pertsona.



*The Guardian*entzako erreportari lanetan Ogotcho eskualdean ibili den Simona Foltynek, hala ere, bildu ditu lekuko nekazari eta familien kexuak funtzionarioek beren lana ondo betetzen ez dutelako, laguntza ez dutela berdintasunez banatzen, jende guztiarengana ez dela iristen beti, agintarietarako kritikoak direnak zigortzen dituztela, eta abar. Gainera, gobernuak zorrotz kontrolatzen omen du atzerriko hedabideen presentzia eta bertatik egiten duten informazioa, neurri batean ulergarria izan daitekeena jakinik horrelako krisietan Mendebaldeko kazetariok sensazionalismoa egiteko daukagun joera sendaezina.

Askok aipatzen den arren etiopiar gehienak auto-konsumoko nekazarietatik bizi direla, egia da Addis Ababako gobernuak aspalditik dagoela abia-

tuta lur eremu zabalak nekazaritza industrialeko multinazionaleri eta baita atzerriko gobernuari ere saltzeko estrategian, globalizazio neoliberalaren kritikoei *land grabbing* edo lur lapurreta deitu dioten desmartzan.

Gure artean ezaguna den GRAIN erakundeak aspaldi salatu zuen Etiopia dela mundu osoan elikadura katearen jabe egin nahi duten korporazioen gogoko harrapakinetako bat, nagusiki lur onaren fama duen Ganbella eskualdea.

Gambellako 10.000 hektarea saldu zion gobernuak Saudi Arabiako Sheikh Mohamed Al-Amoudi printzeari, honek bere sorterreri aberatserako mozkinak ekoiztu ditzan, Etiopian bertan uztaren %40 saltzeko baldintzarekin.

Askok lurralde handiagoko saldu zion gobernuak, 100.000 hektarea, Indiako Karuturi konpainiari. Honek Anuak,

Hego Afrikako 'Times-Live' hedabideak zabalduetako argazkian, Ahmara eskualdeko Tsemere herriko emakumeak inguruko iturri bakarrean ur garraio. Urketan egin beharreko joan etorriak dira emakumeen lanik gogorrenetakoak eta bortizkeriak jasateko arrisku nagusiak. Plastikozko bidoi horiek zertifikatzen dute Etiopiako bazterrik urrunenean ere globalizazioak harrapatu dituela. Basamortu ertzei aspaldiko arazoei azken hamarkadotan gehitu zaizkie populazioaren ugalketak, multinazionaleri eta lekuko politikarietarako adostutako lur lapurretak eta txirotasunetik ateratzeko formula neoliberalerak sortutako zailtasunak.

Mezenger, Nuer, Opo eta Komo etnie-tako milaka familia kanporatu zituen lur haietatik gobernuak denak biltzeko propio haietzako antolatutako herrietan; asko Kenyako Dadaab errefuxiatu eremuraino iritsi dira bizi ezinik.

2012an adostu zuten lapurreta hura Karuturiko ugazabek eta Addis Ababako agintarietarako. Lau urte bete aurretik, 2016ko otsailean, gobernuak eten behar izan du tratua, Karuturik ez delako 100.000 hektarea haietatik 1.200 baino gehiago jarri produkzioan.

Paradoxikoki Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtzak bultzatu duten kolektibizazio bortxatuaren ostean, Karuturik utziko ditu Etiopian milaka hektarea baso buldozerrez suntsituak, milaka errefuxiatu eta beste milaka asko *El Niñoren* idortearen lehen baino mendeago. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Koldo Murua, abeltzaina

«Behiak ematen duen dirua, behiarentzat da»

Abeltzaina da eta Lizaranda elkarteko burua Zigoitian (Araba). Gorbeialdeko mendi mazela zoragarri zaizkigunetan ditu behiak udaberritik udazkenera, eta bertara bidean mintzatu zaigu, gordin, segidarik gabeko lanbideaz.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Usteko nuen abeltzaina abeltzain dela etxetik, baina ez da zure kasua.

Ez da nire kasua, ez. Abeltzaina naiz, baina ez betikoa. Aita Agurain ondoko herri txiki batekoa zen, San Roman de San Millangoa. Garai hartan maiorazkoa geratzen zen etxean, premua, eta gainerakoek etxetik alde egin behar izaten zuten. Horixe egin zuen gure aitak. Amarekin ezkontuta, Zumarragara jo zuten gurasoek, Orbegozo fundiziora lanean aita. Horrela, Urretxun jaio nintzen ni. Hantxe izan ginen nik hamasei urte bete arte. Orduan, fabrikaren zati bat Agurainera ekarri zuen Orbegozok, eta bertara etorri ginen. Hamazazpi urte nituela Aguraingo Orbegozon –edo Atusa-n, nahi baduzu–, ari nintzen lanean, doitzaille. Urteak igarota, Ondategira ezkondu eta, astiro-astiro, saltsa honetan sartu nintzen.

Saltsa duzu abeltzaintza.

Izango ez dut, bada! Saltsa galanta! Joan den aspaldian hemen etxe guztietan izan dituzte hiruzpalau abelburu pinto, esnetarakoak –gero, mestizoak ere sartu izan dituzte–, eta nik amaginarrebari erosi nizkion lau buru. Haiek bazkatze-ko lurra ere erosi nituen, eta abian nintzen, txahalak gizentzen, haragitarako. Horrela hasi nintzen, harik eta 2001ean buru-belarri sartu nintzen arte lanean, bolumen handi xamarrean.

Zer esan nahi duzu?

Nik bi aro izan ditut lanbidean. Lehenengoan, 40 buru izatera heldu nintzen. Bigarrenean, lagun batekin batu nintzen: buru gehiago erosi genituen, ukuiluak handitu... baina lagunak bakkarririk utzi ninduen, honek ez baitu dirurik ematen, abeltzaintza bizitzeko modua delako, eta ez diru iturri. Behitik datorren dirua behiarentzat da, ez dago besterik. Hau ez da errentagarri. Lagunak utzi egin zuen, baina nik aurrera segitu nuen, eta aurrera segitzen dut.

Zenbat buru dituzu orain?

117 abere. 56ren bat behi; gainerakoak txekorrak ditut, gizentzekoak, edo egunotan jaiotzen ari diren txahalak dira. Urtean zehar halako gailur bi izaten ditut: batean, oraintxe, udaberrian, dozena bat txahal jaio ohi zait; bestean, udazken-neguan, orduantxe erditzen dira behi gehienak. Nik ez dut behia besterik, kolore bakarrera jokatzten dut. Sasoi batean zela-zaldiak ere izan nituen, baina hura jolas hutsa zen.

Lizaranda elkartea osatzea ez da jolasa izan.

Abeltzaintza eta mendi publikoa defenditzeko sortu genuen inguruko abeltzainek Lizaranda. Zortziren bat gara elkartekoak Zigoitian. Alabaina, bertako San Pedron du abeltzaintzak indarririk handiena: bi es-


netegi dituzte, eta diruz eta aberez –behi eta ardi–, hantxe dira nagusi. Elkartea sortu genuen Zigoitiko Udalaren eta Arabako Diputazioaren aurrean nola-halako nortasuna izateko. Bakarka ezin da, elkartzeara beste erarik ez dago. Dena dela, esango dizut: ez dugu gauza handirik behar Administrazioaren aldetik.

Lizaranda elkarteko buru, berba egin izan duzunean kexu izan zara lege-araudiez.

Oso murriztaileak direlako. Gorbeialde honetan bertan dena da neurri murriztaileak: sasitza kentzeko, mugak; simaurtzeko, mugak... Mugak, gauza guztietarako. Mendialde hau, berriz, oso da gogorra, larre motxa da, gutxi irauten du, eta Administrazioak neurri murriztaileak baino ez ditu jartzen, eta horrela guk ezin dugu onik atera. Mendia garbitu beharra dago, sasia kendu... horretan ez dago gorabehera handirik. Baina mendian goragoko larreetara igo nahi izanez gero, larre guriagoetara, ez dute uzten.

Mendia babestu beharra dagoela diote.

Mendia babestu beharra? Zaindu egin behar da mendia, zaindu, eta aldiz, guttiz utzia dago, narras. Administrazioak natural-natural nahi du mendia, baina gauza bat da natural egotea, eta bestea, berriz, mendialde hau narras, zikin eta sasitzaiz bete egotea. Animaliek eta landareek, denek bizi behar dute, baina



**Koldo Murua
Lopez de Muniain**
1957, Urretxu

Zumarragako Orbeagoz fundizioak eraman zituen Urretxura bizitzera Koldoren gurasoak. Gero, atzera Agurainera ekarri zituen, alderantzizko bidean. Fundizioan jardun zuen, baina hein batean. Hainbat lanetan ibilia da –Hertzainak musika taldearen laguntzaile ere izan zen hainbat urtez–, harik eta Ondategira (Araba) ezkondu eta abeltzain hasi zen arte. Bizitzeko modu bat du, berak dioenez.

Serengeti

“Akabo Afrikako Serengeti gure Administrazioko teknikarien esku balego. Zoratu egingo lirateke. Tanzaniako iparraldeko ekosistemaz arduratu beharko balira, fin gaizto egingo lukete beren lege, araudi eta gainerako. Ezinezkoa izango lukete hartaz Gorbeialdeaz arduratzen diren moduan arduratzea!”

Handi, txiki

“Problema handia dugu haragiarekin. Kontsumoa ere asko jaitsi da. Harakin gutxi ari dira behar bezala lanean. Saltoki handiek, berriz, borroka handia dute elkarren artean, min handia egiten diote batak besteari, eta haien borrokak, berriz, peko erreka jotzera eramango ditu harategi txikiak berandu baino lehen”.

guk ere bai, ez oteak bakarrik! Hainbeste lege-babes, hainbeste murrizketa, ez da moda besterik. Kontserbazionismo hutsa da, erradikala, ezin da ezer ukitu, baina parke natural izendatuak dituzten guztietan egon da mugimendua, giza jarduera. Parkeok gizakiak lagunduta heldu dira parke izatera, ez da zerutik jausitako gauza. Lege, arau eta babes, oraintxe asmatzen ari dira denak. Ematen du abeltzain edo nekazari izatea salbaia izatea dela.

Bistan da salbaia ez zaretena.

Nekazari eta abeltzainok ingurune jakin batean bizi gara, orden jakin baten barruan, ez dago besterik. Niretzat oso gauza sinplea da, guztiz arrazionala, ez dago zoratu beharrik. Sen on apur bat, ez da besterik behar, bizitzan bertan bezala: sen ona. Ez dugu mendirik eraitsi nahi, ez arbolarik bota, ez zerua lurra-ekin berdindu, mendia egoera onean



mantendu nahi dugu. Basurdeak egiten duen txikizioa ikusiko bazenu, esaterako. Gero eta gehiago dago basurdea, gero eta gehiago laguntzen dio eguraldi epelak, negu goxoak erraztu egiten die bizimodua, ez dute predatzaile naturalik ezagutzen, eta gero eta oker handiagoak egiten dituzte mendian. Izorramendi galanta!

Uste duzu Administrazioa neurritz gain ari dela...

Bai, zalantzarik gabe. Teknikariek ez dute errealitatea bizi, besterik bizi dute, baina ez errealitatea. Hitz egin ere ez dute gurekin egiten. Zertarako? Udalak egiten duen indarraren eta Diputazioaren harreraren arabera dago auzia. Oraintxe, esaterako, inoiz izan dugun udalik harkorrena daukagu Zigoitian. Ez dakigu zenbat iraungo duen egoera honek, baina aspaldian egin diguten kasurik handiena egin digute udaletxean.

Lizarandan baduzue lanik.

Gurea ez da zaila: sasia kentzea, simaur lanak artez betetzea, perimetro-itxiturak zaintzea abereak eskapatu edo besteren lursailetan sar ez daitezen, istripurik eta kalterik eragin ez dezaten...

Arestian esan duzu abeltzaintza bizitzeko modu bat duzula, lanbidea ez dela errentagarri. Aldiz, leku guztietan da haragia.

Eta nongoa da haragi hori? Nongoa? Hemen haragi gutxi ekoizten da, eta saltzeko zailtasunak ditugu. Sekula ententituko ez dudana gauza da: bertan haragi gutxi produzitu, saldu ezin guk, eta bazter guztiak –harategi txiki nahiz saltoki handi–, denak okelez beteak! Espplikatuko didazu zuk?

Ederrari galdetu diozu! Nik ez dakit Eusko Labela dagoela besterik.

Eusko Labela Jaurlaritzaren asmazioa da. Marka sortu zuten, marketin hutsa. Horrek ez du baliorik produzitzen. Sal-



“Animaliek eta landareek, denek bizi behar dute, baina guk ere bai, ez oteak bakarrik!”

toki handi jakin batek asmatu du izena. Izena asmatzen jakin du, baina ez du jakin, edo ez du batere asmatu, harategiak eta abeltzainak zaintzen. Pentsatu ere ez! Jaten duzun haragia munduan handik eta hemendik dator, hemen ez da hainbeste haragi!

Haragia ez da negozio.

Nola izango da, bada, negozio. Haragitarako laguntzak zaharrak dira, laguntza historikoak: batak diru asko jasoko du, besteak gutxi. Ez da produkzioarako laguntza. Laguntzarik gabe, ezinezkoa da haragia produzitzea. Eta laguntzak izanda ere, nahiko lan! Kontua ez da, bakarrik, abereari jaten eman behar zaio, gainerako guztia baizik: instalazioak, makineria, seguruak, hau da, gastu finakoak. Besterik da elikadura. Txahalak ez dira belarrez hazten, kontzentratuz baizik, zerealaz, eta zerealak dirua balio du. Kilo bat haragi egiteak dirua balio du.

Zertan da esnea?

Esnea aspaldi izorratu zuten. Eta haragiak bide horixe darama. Esnearen ustiapena pikutara bota zuten. Kostuek ez dute ematen. Zigoitia inguru hau –Elosu eta gainerako–, oso inguru egokia da esne-behietarako, baina ez dago erraz. Kaiku eta gisako konpainia handiekin akordioa aspaldi egin dutenak aurrera ari dira –nolabait aurrera–, baina gainerakoak oso estu eta larri ari dira.

Merezi du neke eta pena hauetan bizitzea?

Esan dizut, nirea behiekin egiten dudan bizimodua da. Baina bizimodua, gero! Neure gisa eta bakarrik lan egiten dut. Uztailearen hasieran hamar egun hartzen ditut opor, belar lanak amaitu eta lasto egiten hasi baino lehen. Gainerakoan, hemen behar duzu, behiak gora, behiak behera. Egun batzuetan, orduak libre dituzu, beste batzuetan, 24 eta

gehiago beharko zenituzke. Beti hemen, ezin behia utzi eta alde egin. Abere biziak urte osoko lana ematen dute. Egia da lan egiteko moduak badirela, eta ni behien oso esklabo bizi naizela. Esan nahi dut, gehiegi zaintzen ditudala: San Prudentziotan mendira ekartzen ditut; irailaren erdialderako, berriz, etxean ditut, Ondategiko ukuiuletan.

Zergatik?

Irailarekin batera larrea eskasten hasten da mendian, eta behiak gorago igo beharrean, etxera ekartzen ditut, txahal egiten hasten zaizkit eta. Etxean ez dut larre handirik, lur gutxitxo dut aukeran, baina txahal jai berria bertatik bertara zaindu behar da. Gero, berriz, txahalak amaren errapetik esnea ondo hartzen duen, ez duen, ikusi behar da. Tamainan jaten eman behar diot txahal txikiari... Gauza asko. Hemen inguruan neu izango naiz behia mendian denbora gutxien edukitzen duena; hain zuzen, laster hasten zaidalako txahal egiten: irailan hasita, urrian eta azaroan, hortxe egiten dizkirate txahal gehienak. Oso erditze onak dira, garai horretan ez du-eta hotz handirik egiten eta txahalak ondo eusten dio.

Administrazioak nekazaritza-abeltzaintza aintzatestea nahiko zenukete. “Sektore estrategikotzat hartzea”, orain esaten denez.

Horretan naiz ni. Beste zenbait herrialdetan ez da gertatzen hemen gertatzen ari dena. Hemen ere bada alderik, hala ere. Ez da gauza bera abeltzaina Araban, edo abeltzaina Gipuzkoan eta Bizkaian. Bizkaiak sektore txikia du, baina kutxa handia. Araban, sektore handiagoa da, baina kutxa txikiagoa.

Diputazioen laguntzaz ari zara.

Bai, Diputazioaren diru-laguntzak, Europa bidez datozenak. Baina Gipuzkoan 5.000 euroko laguntza bada, Araban 2.500ekoa da. Non da aldea? Gipuzkoak berak gehiago jartzen duela laguntzetan. Araban ez, hemen, urte batetik bestera, gero eta gehiago estutzen zaituzte diru-laguntzetara heltzeko modurik izan ez dezazun. Arabako Diputazioak ez dio abeltzainari behar beste laguntzen. Bizkaian, makineria erosi nahi duenari %40ko laguntza ematen diote. Araban, %10. BEZaren erdia ordaintzeko ere ez duzu.

Laguntzak nekez du inor konformatzen.

Begira, oraintxe egin digute diru-laguntzetako plana Jaurlaritzan. Guztizko intentzioan egin dute, baina aurrekonturik gabe. Diputazioen diru-laguntza txikiak, abereak gizentzeko laguntzak... hau, hori eta hura, eta aurrekonturik ez. Gu horretaz hitz egiten batzarrean, eta garai berean prentsaurrekoa ematen ari ziren Jaurlaritzako agintariak, ados ginelakoan, eta artean abeltzainok erabakitzeke genuen auzia. Arraroa, benetan!

Herdoilik ez duzu mingainean: saltoki handiak, Diputazioa, Jaurlaritza, Eusko Labela...

Oker egon ninteke, ez naiz jainkoa... Beste ohar bat: behi eroen garaian harakinek atera zizkieten abeltzainei babak eltzetik. 150 harategi dira Eusko Labelean, Araban ez dira asko. Oraindik orain, saltsa izan da hor ere, Administrazioaren araudi berri bat tarteko: labelduntzat eman nahi zituzten edozein lekutan jaiotako txahalak, berdin Caceres, Kantabria nahiz Burgosen (Espainia), edo berdin Frantzian. Baldintza bat izango zen, ordea: erkidego honetan la-



Azken hitza:
'Txolin!, txolin!'

Gonga muinoan barrena, urruti ikusi ditugu behiak. Hurreratu gara, Koldoren atzetik ni, argazki ateratzen. Sakabanaturik behiak, han hasi da gure abeltzaina "txolin!, txolin!", eta hantxe etorri zaizkio mantso baldar behiak ondora. "Txolin!, txolin!", Koldok azken hitza bere.

belaren barruan dagoen abeltzainak gizentzea kanpoan jaiotako txahal horiek. Baldintza hori betez gero, labelduntzat emango zuten kanpoko txahala. Eztabaidak izan dira, eta kanpoko txahalarren sarrera murriztu dute.

Eusko Label harategiak abiaraziko dituztela irakurri dut.

Bai, Basque Country izena jarriko diete horiei ere orain.

Kar, kar...

Horixe, bada!

Barrez ari gara, baina hauxe panorama! Ez dakit, bada, zer pentsatu.

Pentsatu? Ezer ez pentsatu! Goazen behiak ikustera mendian gora, Gongara. Alaiagoa izango da eguna. Eta gogoan hartu: behiak ematen duen dirua, behiarentzat da. Ez dago irabazirik. Emazteak etxetik kanpora lan egingo ez balu, pentsatu ere ez nik abeltzain aurrera egitea. Edo beste modu batera beharko luke. Ez dago etorkizunik. Seme-alabekin, adibidez, hitz egin ere ez dugu egiten behiekin segitzea-ri buruz. Hitzik ere ez gai hauetaz. ■



Kalean da maiatzeko

aizu!

- Arabako Errioxako ardoa, bide propioaren bila
- El Sekadero, mikroantzerkia Donostian
- Euskalduna, etiketarekin ala gabe?
- Izaro, arin-arin

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizu.eus

Latinoamerikako demokratizazio prozesua arriskuan

Negua iristen ari da Hego Amerikako ezkerreko Venezuelako hauteskunde porrota eta Mauricio Macriren garaipena Argentinan icebergaren punta baino ez dira. Evo Moralesen laugarren berrautaketa ahalbidetu zezakeen aldaketa konstituzionala ez zen aurrera atera erreferendumean, eta orain, badirudi Rafael Correak ez duela bere burua aurkeztuko 2017ko hauteskunde presidentzialetarako Ekudorren. Brasilen ere ez da giro, Dilma Rousseffen aurkako eraso oso garantzitsua da kontinente osoarentzat. Eskuma zikin jokatzeko ari da kargugabetze mekanismoa erabat bortxatuz. Oraingoz, Kongresuko presidentek suspenditu du botazioa, nahiz eta seguruenik foiletioak aurrera jarraituko duen atal berriekin.

Latinoamerikako herrialdeetan ezkerreko boterera iristeak demokratizazio prozesuan aurrerapauso sendoak ematea suposatu zuen. Ordura arte jendar-tearen parte handi bat era sistemati-koan zegoen esparru publikotik kanpo, ezkerreko gobernuak beraien partaide-tza demokratiko normalizatu bide-ratzeko baldintzak jarri zituzten arte. Etxebizitza prekarioen erregulazioak erroldatua izateko aukera eman zuen, errenta birbanaketa politikek pobrezia-tik atera zituzten milioika pertsona eta oinarritzeko hezkuntza proiektuek erraz-tu egin zuten sozializazio politikoa.

Birbanaketa politikak egiteko herrial-de bakoitzak bere bide propioa garatu du, baina, oro har, helburua ez da hain-beste izan sistema ekonomikoa aldatzea, baizik eta pobreenen hozkailuak bete-tzea hazkunde ekonomiko estraktibista eta kontsumistaren bitartez. Herritarren poltsikoetara diru gehiago iristeak ez du esan nahi produkzio harremanak eta egitura ekonomikoa aldatzen dire-nik. Dударik gabe, lehengaien kontrola hartzeak onurak ekarri ditu birbanaketa



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AsierBlas

Eredu ekonomikoa ez da arazo bakarria izan. Kasu gehienetan esparru publikoaren segurtasun falta eta biolentzia ez dira konpondu eta ustelkeriaren egoera hobetzeko ahaleginek ez dute arrakastarik izan. Bi elementu horiek aprobetxatu dituzte ezkerreko gobernuen aurka egiteko eskuineko hedabideek, sistema komunikatiboan hegemonikoak, adibidez Brasilen orain

politikak egiteko, baina horiekiko de-pendentsia handiegia da. Ez da asmatu egitura ekonomikoa aldatzen. Adibide gisa aipa genitzake sektore publikoen tamaina txiki samarrak, eta batez ere, eraginkortasun gutxiko politika fiskal-ak. Bestalde, jendar-tean eredu kontsu-mista indartu da. Birbanaketa politikek kontsumoan oinarrituriko klase ertain berri bat sortu dute neoliberalismoaren ideologiari lotua. Hemendik sortzen da ezkerreko gobernuen kontrako beste oposizio garrantzitsu bat.

Eredu ekonomikoa ez da arazo ba-karra izan. Kasu gehienetan esparru publikoaren segurtasun falta eta bio-lentzia ez dira konpondu eta ustelke-riaren egoera hobetzeko ahaleginek ez dute arrakastarik izan. Bi elementu horiek aprobetxatu dituzte ezkerreko gobernuen aurka egiteko eskuineko hedabideek, sistema komunikatiboan hegemonikoak, adibidez Brasilen orain.

Azkenik, ikuspegi geopolitikotik azken urteetan integrazio ekonomikoa lati-noamerikarrak ameskeria dirudi orain. Lehengaien prezioek behera egin bezain laster moteldu eta ia geratu da. Galduta-ko aukera bezala defini daiteke prozesua. Egia da, herrialde guztiek ez dutela indar berdina jarri prozesuan, baina oro har, giltza beste behin Brasil izan da. Herrial-de handienak potentzia erregionalaren papera jokatzeko du, eta askotan, bere in-teres nazionalak lehenetsi ditu integrazio erregionalaren kaltetan. Ez da arduradun bakarria izan, noski. Kontua da ezkerreko populisten diskurtso nazionalistak egin dituztela, eta horrek, modu batera edo bestera, bultzatu nahi zuten sakoneko beste helburu integratzailearekin batera tentsioak sortu dituela.

Egitasmo horrek agenda politikora bueltatu beharko du berandu baino lehen, baldin eta Latinoamerikak kolo-nia izateari utzi nahi badio eta benetako independentzia eskuratu nahi badu. ■

Oinetakoak, ibiltzeko

Martxoko argazki bat: etxeko zapatila bat, feltrozkoa, negurakoa. Orbel artean ahaztua. Geldi-geldian lokartua. Goroldioa itsatsi zaio orpoan, berde-berdea hori, pista-txo-kolorekoa. Ederki nabarmentzen da oinetakoa astigar izoztuaren hosto zaharren gainean. Lekukotasun moduko bat ematen du: "Hemen izan zirelako, naiz berton". Irmotasunaren seinale-edo.

Kanpora-martxorekin sentitu ohi da neguaz, iraganaz, hausnartzeko gogo. Ez du gogoratzeak pasatutakoa aldatuko, bai, akaso, datorrena ulertzen lagunduko: sanjose-loreak ederrak dira, beharbada euritsua izan delako negua, edo bereziki hotza, edo epela, edo lehorra.

Kukuaren etorrerarekin gogoratu ohi dira Dmitri Mendeleiev errusiarraren lehen taula periodikoa, emakume langileen aldarrikapena, Karl Marxen heriotza, Vietnamgo inbasio estatubatuarra... Egutegian, nahi beste efemeride dago, kolore bateko nahiz besteko, iragane-koak denak. Zapatila ahaztuak bezala.

Apirileko argazki bat: basorako oinetakoeekin emakume zaharra fokuan, beroki lodia, bufanda ederra... hotz egiten du mendialdean. Oroigarria eskuetan. Bandera errepublikanoa paparrean... "Izan nintzelako odoletan, naiz orain



Jose Inazio Basterretxea

EHU-KO IRAKASLEA

Gogoratzeak ez du errebantxa eskatzen. Ezta barkamena ere. Iraganaren semeago egiten gaitu. Alabago. Horretan datza haren balentria

arrosetan". Ez delako-edo beti hobeagoa iragana.

Elgetan, gogoan hartu dituzte gerra garaiko emakume errepresaliatuak eta erresistenteak: guda-oinetako milizianoak, erizainak, lubaki-egileak, kazetariak... eta, behin frontea hautsita,

soldadu oldartuen ferra pean hartutakoak: urliaren ama, sendiaren emaztea, berendiaren alabak.

Ez du gogoratzeak aldatzen historia; gehien jota, negar-anpulua lehertuko du musuan. Gogoratzeak ez du errebantxa eskatzen. Ezta barkamena ere. Iraganaren semeago egiten gaitu. Alabago. Horretan datza haren balentria.

Maiatzeko argazki bat: botak, hango eta hemengo magalak zapaldu eta zola urratua dutenak, lokarriak gasta-gasta eginda dituzten oinetako militar zaharrak. Bandera bat ere haien ondoan: zuria, Borgoñako gurutzearekin. Atzealdean, *Oriamendi* abestiaren letra, pergaminu itxurako orrialde batean idatzita. Zaharrak berri-edo.

Behinola etxeko atarian zapatilak ahaztu zituen amamak, Elgetara joateko bota indartsuak jantzi dituen berberak, dio, esan, armairuan ondo begiratzeko, aro aldaketak neurriko zapatak eskatzen dituela, udarako egokiak: "Maiatzeko loretan ez gara-eta bezperetan beste asperten".

Luzeak dira gizakiaren ibilbideak, hobe iraganean lokartu barik jardutea, gaur baita biharko historiaren abiapuntua. Irmotasunaren gainetik. Nostalgia-gainera gainetik. Ezin berrituaren gainetik. ■

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Tel 948 13 26 97
Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
lua@luark.com

garabide
bidagara

Jose Arana 13 · Eskoriatza (Gipuzkoa)
☎ 943 250 397
www.garabide.eus

txatxilipurdi

Nafarroa etorbidea, 23 / 1.
Arrasate (Gipuzkoa)
www.txatxilipurdi.com

Protokoloa



Karlos Gorrindo
EUSKARA TEKNIKARIA
@kgorrindo

Gure lankide batek esan digu protokoloa abian jarri diola medikuak tentsio altuegia duelako. Guk ez dugu jakin barre edo negar egin berba ponposo hori entzun diogunean. Ze, egun, protokolo hitza erabili ezean adierazten duzunak ez baitu garrantzirik, antza. Koskabi-loak ezta erri, edateari, jaki gazituak jateari eta kirola egiteari ekin dio itsu eta ero, protokoloak izu laborri. Eta gutxi gorabehera protokolo berbak zer esan nahi duen jakin arren, hiztegiak jo dut berbarean esanahi zehatza ezagutzearren. Kortesiak arau multzoa ei da, esparru pribatuan zein publikoan erabil daitekeena. Esaterako, mahaian aho-zapiak zelan tolestu behar diren jakiteko; ekitaldi ofizial batera zelan joan behar duzun jantzita jakiteko; barruak husteru inoren komunera sartu-irtenean uzkia garbitzeko erabili behar duzun teknika eta taktika ezagutzeko. Protokoloak agintzen du munduan, protokoloa ohitura ere badelako, ikasi gabeko portaera da batzuetan, kulturala, besteetan, eta horren arabera jakingo du munduak izaten eta egoten dakizun ala ez gizartean.

“Protokolo hitz potolo”, eremu ofizial edota diplomatikoan erabiltzen denean. Hitzarmen hitzak baino balio erantsi txikiagokoa du. Baina protokoloak hasten da, beste uztardura batzuetara iritsi ahal izateko. Eta horixe da Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak onartu dutena: protokoloa. Lankidetzan hasteko prest dira biak, eremu eta alor desberdinetan (Funtzio Publikoa,

Toki Administrazioa, Osasuna eta Kontsumoa...). Ezin ukatu albiste horrek sekulako ilusioa eragin digula arragoa den Nafarroarekin anaikide jardun ahal izateko aukera izango dugula jakiteak.

Diktadura osteko hitzarmenetan hitzartu zuten Nafarroa kanpo uztea EAetik, Arabako herrialdearen mesedetan. Borroka armatuaren aldarrikapenen artean garrantzitsuenetakoa Nafarroak EAerekin bat egitea zen, eta armek lortu ez zutena protokolo honek bideragarri egin du.

Esanak esan, neur dezagun bere izaera osoan protokolo honen onarpenak izango duen sustraitzea. Geroak esango digu oraina trinkoa denentz. Ezin dugu ahanzi, gainera, horrelako protokolo motak Errioxa eta Aragoiko gobernuekin ere onartuta daudela. Hau da, auzotarrekin, familia artekotasunik ez dutenekin. Ezer apartekorik ez, beraz. Baina ilusioa egiten digu anaia haserretuarekin berba egin barik denbora luzeegian egon eta gero, elkar ikusi eta hitz egiten hasi gabela eta, gero, nahi izanez gero, elkarri ulertzeko gai izango gabela. Baina kasu, protokolo horrek ezin digu kriskitinka jarri, ez baitu adierazten EAEko gobernuan eta Nafarroakoan izaera juridiko politikoa aldatuko denik, ezta bi erakundeek administrazio bera partekatuko dutenik ere. Ezta hurrik ere! Auzotarren arteko bizikidetzak normalizatu baino ez du adierazten protokolo horrek. Abertzaleok neba-arreben arteko harreman normalizatu izan dadila nahi izanagatik ere. ■

Eguneroko ogia



Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Goizero aurreko eguneko ogia kafesnean bustita gosaltzen du. Ogi hori jaterakoan *beragan* pentsatzea ekidinezina da. Irribarretxo bat ateratzen zaio egunero datorkion gizona gogoratzen duenean. Poliki-poliki bainua hartzea doa, patxadaz garbitzen da, ez dauka presarik. Amaitutakoan, etxean ibiltzeko arropa jantzi, bata bat gainetik bota eta leihora hurbiltzen da. Bertan daukan butakan eseri eta itsasoa begiratzeari ekin dio, *bera* etorri arte denboratxo bat geratzen zaiolako.

Bozina entzun da leiho azpian, zenbat denbora pasatuko zen hemen eseri denetik? Pozik, leihoa

zabaldu eta “Kaixo guapa!” entzun du kotxetik atera den gizonaren ahotik. “Kaixo!” erantzun dio Axunek. “Eguraldi ederra gaurkoa ezta? Planik bai arratsalderako?”, *berak*.

Gaur etxean geratuko dela erantzun dio (eguneroko plana dela adierazi gabe, ez du kezkatua izan nahi). Sokari lotutako poltsatxoan asteko ogiaren zenbatekoa sartu dio, 5,85€ eta poltsa jaitsi dio okinari, honek dirua hartu eta barra sartu dio poltsan “Agur Axun!” oihukatuz. Poltsa jaso, ogia hartu eta leihoa itxi du. Butakan eseri da. Gaurkoan ere hemen geratuko da; baina pozik dago, asteburuan ilobak datoz. ■

Jule Goikoetxea eta Xabier Barandiaran

IN-DE-PEN-DENTZIA

BA AL DA BALDINTZARIK EUSKAL HERRIAN?

Zertan ote da independentzia prozesua Euskal Herrian? Gaia aztertu duten bi ikuspegi batu gura izan ditugu elkarrizketa honetan. Irakurleak ikusiko duen legez, desberdinak dira, baina bada parekotasunik ere haien esanetan. Egun ez dute baldintza egokirik ikusten Euskal Herrian independentzia prozesu bat irekitzeko, baina aurrera begira baikor ageri da Goikoetxea, eta ezkor Barandiaran.



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Xabier, zuk aipatu izan duzu une honetan ez duzula independentziarako baldintzarik ikusten. Zergatik?

XABIER BARANDIARAN. Ni independentziaren aldekoa naiz, beste edozein estatuk duen maila berean formulatuta. Unean uneko herritarrek duten borondatearen arabera ere bada independentzia. Une honetan ez da baldintzarik ematen independentziarako. Zergatik? Nagusiki hiru arrazoirengatik. Bat, gure herrian ez politikarien artean ez herritarren artean ez dago halako prozesu bati eusteko nahiko kontzientziarik. Badago kontzientzia estetiko bat, agerpe nerako, gure politika neurri handi batean parametro estetikoetara eramanda dagoelako.



Bi, ez dago nahiko integrazio mailarik sistema instituzionala eta gizarte zibilean sortzen diren beste mugimenduen artean. Eta hiru, gaurko gizarte konplexuetan independentziarako sare ekonomiko indartsu bat antolatua ez badago, praktikan ezinezkoa da prozesu konstituziogilerik aurrera eramatea.

JULE GOIKOETXEA. Demokrazia posible den ala ez galdetzea bezala da. Egiten dugun heinean izango da posible edo ez. Nik ere ez dut baldintza ez objektiborik ez subjektiborik ikusten. Hemen egiten dugun estatugintzak, kallekoak zein instituzioetakoak, herrigin-

tzaren kutsu gehiegi du eta hori diskurtsoan ikusten da. Gure politikariek ez dute estatu diskurtsorik; adibidez, ez dute federalismoa aipatzen, Kanadan edo Eskozian jendartean aipatzen diren gisan. Eslogan gisa hitz egiten da independentziaz hemen, baina ez zer estatu eredu nahiko genukeen.

Katalunian herrigintza eta estatugintza ez dira kontrajarri, eta guk ere garbi eduki behar dugu herri demokratikoa herri erakundetua duen estatua dela. Euskal Herrian kaleko borroka edo herrigintza deitu dena erakundeetatik egiten zen lanari kontrajarri zaio. Horri buelta ematen ez badiogu ezinezkoa

izango da prozesu independentista batean sartzea. Ez dira baldintzak ematen, baina hauek sortu egin behar dira. Olatu batean gainean gaude, European badi dira baldintzak eta hamarkada bat edo bitan ikusten dut independentziarako aukerarik.

X. BARANDIARAN. Halako prozesu bat abian jartzeko estrategia bat behar da eta estrategia jartzeko giza kapital bat, euskal herrigintzak aspaldiko urteetan galdu egin duena. Trantsizioan abertzaleatasunaren belaunaldi bat jarri zen sistema instituzionala eraikitzen autogobernutik, eta beste batek Estatuari gatazka planteatu zion borroka armatuaren bitartez. ETArekin amaierarekin belaunaldi bat agortu zen, baina horren tankerako beste amaiera batzuk ere ematen ari dira euskal gizartean: bukatu da ikastolak sortu zituen belaunaldia, bukatu da Trantsizioa egin zuena, ETA sortu zuena... Alde horretatik krisi handi batean gaude, krisi horretan eman da politikaren pribatizazio ikaragarria eta gure gizartearen indibidualizazioa. Horrek eragin asko izan du, baina besteak beste ekarri du gure herriaren lidergo politikoen deskapitalizazio inportante bat. Non daude gure herriko liderrak? Esparru pribatuan eta batez ere ekonomian.

Horregatik, politikak eta erakunde sistemak gure herria traxionatzeko du-



PROFILAK

JULE GOIKOETXEA

Donostian jaioa (1981). Filosofoan doktorea, EHUko Politika Zientzietako irakaslea da eta Oxford Unibertsitateko ikertzaile elkartua. Euskal estatu feministari buruz teorizatu du, besteak beste, eta "Independentzia helburu" (Txalaparta 2015) liburuan parte hartu du.

XABIER BARANDIARAN

Tolosan jaioa (1969). EAJko kidea da eta Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren Kabineteko arduraduna. Soziologian doktorea. Zientzia Politikoetan lizentziatua. Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzietako irakaslea da.

ten ahalmena galtzen ari da. Instituzioek gero eta antz handiagoa dute herritarrei eskaintzen dien zerbitzu agentzia handi batekin; eta hori garrantzitsua da, gizarte zerbitzuetan oso aurreratuak gaude eta, baina beste kontua da erakundeek herrigintza transformatzeko gaitasuna izatea. Abertzaletasunak, alde batean zein bestean, hausnarketa autokritikoa egin behar du mugak non diren aztertzeko. Politikan egunerokoak jan egiten gaitu, horrek politikagintza eraman du hurrengo eguneko titularraren araberrako herrigintza egitera. Hori arazoa da epe ertaineko estrategia baterako.

J. GOIKOETXEA. Hori dago lotua sistema politikoak bizi duen krisi sakonarekin. Ez dago herritarren eta klase politikoaren arteko harreman dinamikorik eta, ondorioz, erakundeetatik ezinezkoa da herrigintza transformatzea eta herrigintzak ikusten ditu erakundeak eta politikariak beste mundu batean. Beste herrialde batzuetan ere gertatzen ari da hori. Horrek adierazten du demokrazia parlamentarioak duen krisia. Hemen borroka moldeak eta estatugin-tza moldeak agortuta ditugu, baina hori positibotzat jotzen dut, ordua zen eta. Erronka da ea nola egituratzen den be-launaldi berria, oso prestatua datorrena eta beste lehentasun batzuekin.

Bi tradizio abertzaleez hitz egin duzue. Maltzaga izan da hauetako konf uentzia puntua, Lizarra-Garaziko prozesua hor dago, besteak beste. Gaur egun, aldiz, krisian dagoela dirudi.

J. GOIKOETXEA. Hemen arazoa da abertzale guztiak ez direla independentistak. Abertzaleak %60 gara gutxi gorra-behera eta independentistak %35. Beraz, abertzaleekin bakarrik zenbakiek ez dute ematen, baina estrategikoki ere badira arazoak. Gaur egun ez da lotu behar nazioetasuna independentziarekin, ongizatearekin eta demokraziarekin baiziki. Katalunian horrek oso fruitu onak eman ditu eta hemen batzuk hasi dira diskurtso hori zabaltzen.

X. BARANDIARAN. Une honetan bi arazo daude abertzaletasunean. Bata, abertzaletasunaren definizioa da, gezurra badirudi ere akademikoki konpondu gabekoa. Estrategikoki sezesioa edo demokratizazioaren teoriak baliagarriak dira abertzaleen indar metaketa egi-

» **JULE GOIKOETXEA:**
“Euskal Herrian kaleko borroka edo herrigintza deitu dena erakundeetatik egiten zen lanari kontrajarri zaio. Horri buelta ematen ez badiogu ezinezkoa izango da prozesu independentista batean sartzea”

» **XABIER BARANDIARAN:**
“Gure herrian, ez politikarien artean ez herritarren artean, ez dago halako prozesu bati eusteko nahiko kontzientziarik”

» **JULE GOIKOETXEA:**
“Legebiltzarreko batzordeetan-eta ikusten dut EAJ eta EH Bildu gauza askotan ados direla, horietatik tiraka gaurdanik has daitezke independentziarako baldintza subjektiboak eta objektiboak sortzen”

» **XABIER BARANDIARAN:**
“Sinesten dut, ordea, abertzaletasun soziologikoan badela prozesu independentista legitimatuko lukeen sektore zabal eta zentrala”

teko, baina bideratu gabe dago nazio izaerak egitura politikoeekin behar duen harremana. Niri egitura politikoak interesatzen zaizkit, baina nahiko nukeen nazioa defenditzen duten neurrian. Egia da, hala ere, nazio identitatea pluralizatu egin dela eta gaur egun ongizateko osagaiak eta demokraziari dagozkionak biltzen dituela, baina ez dago ondo definituta zer tamainatan nazio eraikuntzak eskatzen duen egituraketa politiko jakin bat edo beste bat.

Eztabaida hau eman gabe dagoenez, debate estrategikoak ere zailtasunak ditu. Gaur ez dago herri estrategia bat, alderdi bakoitzak bere biziraupena ziurtatzeko estrategia du. Nola da posible, adibidez, ez jartzea ados gure herriak beharko lukeen nazioartekotze estrategiari buruz? Nola da posible ezin adostea gure herria garatzeko bi edo hiru zentro ekonomiko indartsu beharko genituzkeela? Nola ezin da adostu gure herriak komunikazio esparru bakar eta bateratua behar duela? Xabier Arzalluzen figura historikoa aldarrikatu nahi dut. Bere ikaslea izan nintzen eta hark herri estrategia bat zuen buruan. Beste batek esan dezake Txomin Iturbek zuela hori.

J. GOIKOETXEA. Ez dago adostasunik alderdiek ez dituztelako euren estrategiak, beraz, ez dago ezer mahaiaren gainean jartzeko. Ez EAJn, ez EH Bildun ez dut ikusten herri ikuspegiarik aurrera begira.

X. BARANDIARAN. Ez nago ados. Ni EAJkoa naiz eta izan naiz halakoez EAJk egin dituen azterketetan. Ez da hainbeste estrategiarik ez dutela, baizik egiten direnak errealitatearekin konexio gutxi dutela. Herri estrategia efektiboa behar dugu eta horretarako bi baldintza behintzat sortu behar dira: bata legitimatzea, eta beste boterea. Indar transformatzailea behar da. Alde horretatik ETA okertu egin zen, pentsatzen zuen posible zela Estatuari aurre egitea nolabaiteko botere antisistemikoa sortuz, eta hori hondamendia izan da.

Sinesten dut, ordea, abertzaletasun soziologikoan badela halako prozesua legitimatuko lukeen sektore zabal eta zentrala. Beraz, asmatuko bagenu marx-tan jartzen zerbait prozesuala, horrek botererako baldintzak sortuko lituzke eta legitimaziorako baldintzak handitu.



J. GOIKOETXEA. Adibide bat. Duela gutxi EAJk gure instituzioen funtzionamenduaz egin zuen txosten bat. Esango nuke EH Bildu ados dagoela hor jartzen duen %99arekin. Hor funtzionamendu federalaz hitz egiten da. Zergatik ez dira adosten hor direnak, baina foralismoa erabili beharrean federalismoa erabiltita, nazioartean denek ongi uler dezaten? Legebiltzarreko batzordeetan-eta ikusten dut gauza askotan badirela adostasunak, horietatik tiraka gaurdanik hasi daitezke baldintza subjektiboak eta objektiboak sortzen.

Asmatu edo ez, ezker abertzaleak asko hitz egiten du independentziaz; EAJn aspaldi ez da independentziaz hitz egiten Xabier.

X. BARANDIARAN. Ez da hala. EAJn asko hitz egiten da independentziaz eta barneratutako prozesua da; hala ez balitz Euskal Herrian independentzia ez litzateke posible. Baina ezker abertzaleak egingo ez balu ere ez. Bien in-darra behar da bai ala bai. Hitz egiten

denean pase foralaz, alde bikotasunaz edo erabaki eskubideaz antzeko gauzez ari gara, hau da, herri honen borondatea errespetatzeaz. Gure posizio politikoak hor daude, baina estrategian arazo handiak topatzen ditugu, eta hainbatetan ateratzen diren kontzeptuak une bakoitzera egokitzeke terminoak dira.

Gure Esku Dago arrakastaz sortu zen, gehiago kostata ibili da gero. Zein leku ikusten diozue independentziaren eztabaida honetan?

J. GOIKOETXEA. Oso garrantzitsua da. Erabaki eskubidearen aldeko subjektua ez da handitu bere etorrerarekin, baina bi kontu interesgarri ekarri ditu: batetik, herri mugimendu gisa sortu da, nahiz eta alderdiak saiatzan diren eragiten; bestetik, herrietan jeltzaleak eta ezker abertzalekoak elkarlanean jartzeko balio izan du.

Baina erabakitzeke eskubidea ez da nahiko jendea kalera ateratzeko, horretarako jendea haserre egon behar da eta. Katalunian urteroko mobilizazio hori lor-

tu dute independentzia aldarrikatzen dutelako, erabakitzeke eskubidearekin ez zuten lortuko haserre hori mantentzea. Orain arte erabakitzeke eskubidea plazaratu dute eta orain, egingo diren herrieta-ko kontsultekin, pentsatzen dut independentziak hartuko duela protagonismoa.

X. BARANDIARAN. Oso ongi dago halako mugimendu bat eta partehartzeko ahalegin guztia egiten dut, baina arazo bat ikusten dut. Benetako kontzientzia sortzeko behar dira pertsonak modu kolektiboan gune transformatzaileak lantzen eta une honetan ez daude. Gure herrian jende askok abertzaletasunaren kontzientzia momentu ludiko bat bezala bizi du. Herri batek bere erritoak behar ditu, sinbologiaren gestioa eta bere identitate kolektiboa eraiki behar du, baina horrez gain behar dira beste hiru gauza gutxienez: hezkuntza sistema, ekonomia sistema eta komunikazio sistema, iritzi publikoan zure errealitatearen gestioa egiteko. Gaur egun, adibidez, gure iritzi publikoa espainola da.



Gure autonomietan badira hezkuntza, ekonomia eta komunikazio arloak. Baliagarriak dira independentziarako? Zer egin behar da baliagarriak izan daitezten?

X. BARANDIARAN. Gutxiesteko moduko ez den ekarpena egin dute, baina gaur egun berkapitalizazio bat behar dute. Behar dute bisio estrategiko bat, behar dute giza kapitalaren akumulazio bat eta behar dute oinarritzko kontsentsu politiko bat gai horien inguruan. EiTBn ez badago EAJren eta ezker abertzalearen arteko kontsentsurik EiTBk ez du etorkizun politikorik. Une honetan gure enpresak gero eta menpekoagoak dira kanpoko sistemekiko, horrek esan nahi du gure ahuldade ekonomikoa handia dela, eta ekonomikoki ahula den herriak ez du aurrera egiten. Beraz, hori estrategia bat behar da eta hori landu egin behar da. Non? Ezagutza aurreratuetako sistemetan, eta hori unibertitate da.

J. GOIKOETXEA. Hor kapital humanoa badatorrela uste dut. Akademia oso zati-tua egon da hemen eta hori arazo ikeragarria da ezagutzaren produktiorako. Hori bideratzea lortzen dugunean, par-

tidua askoz azkarragoa izango da. Alderdietan oraindik eman ez diren leuntzeak ematen ari dira akademian.

Independentzia Estatuarekiko adostasunez lor daiteke, erreferendumez, edo konfrontazioz eta aldebakarreko aldarrikapenez. Zein giro ikusten duzue hemen eta Espainiako Estatuan?

J. GOIKOETXEA. Independentzia prozesu guztietan estatuak ez du inoiz baime-na ematen abian dagoen arte. Aldebakartasunez independentziaren aldeko zure gehiengoa lortu behar duzu eta ondoren negoziatu, orduan bakarrik esan dezakezu "negoziatzen ez badugu gu bagoaz". Prozesua hasi arte ez duzu ezer negoziatzen estatu matrizarekin, honek ez duelako sekula onartuko lurraldearen zati bat joatea. Espainia ez da demokratikoa eta demokratikoa izanda ere lehen fasea beti da konfrontaziokoa, bestela ez duzulako zer negoziatu.

X. BARANDIARAN. Nahasketa handia dago aldebakartasuna eta aldebakartasunaren estrategien artean. Independentziaz hitz egitean, kontua da ea in-

dependentziara iristen garen ekintza konstituziogile bakar baten bidez edo prozesu baten ondorioz. Ados nago Julerekin, une batean, subjektu batek bere indarra erakusten du eta horren ondorioz onarpen bat lortzen du, negoziazioz bideratzen dena. Beraz, posible da estatu independente gisa une bakar batean eratzea? Indar handia baduzu bai, baina guk ez dugu. Berdin da aldebakartasuna edo aldebikotasuna, zuk etxean indarra eraiki behar duzu eta horrekin negoziatu. Hori da gure herrian azken urteetan galdu egin dena, horretarako prest dagoen jendea, indarra. Beraz, neurtu behar duzu norabait joan aurretik duzun indarra, bestela etsipena sortzen duzu eta bilduak dituzun indarrak sakanatu eta ahultzen dira.

Katalunian ba al dute aipatzen duzuen indar hori? Nola eragiten digu guri hango prozesuak?

X. BARANDIARAN. Ez dute independentzia prozesua egiteko nahiko indar. Baina badute gizarte nahiko integratu eta orekatua, Estatuarekiko distantzia markatu eta barneratu duena Katalu-

» **XABIER BARANDIARAN:**
 “Gaur ez dago herri
 estrategia bat, alderdi
 bakoitzak bere
 biziraupena ziurtatzeko
 estrategia du”

» **JULE GOIKOETXEA:**
 “Desberdintasunak
 ikusteko begiratu liteke
 EAera eta Nafarroara:
 EAEn euskal estatugintza
 egin da eta Nafarroan
 espainiar estatugintza”

niak proiektu politiko bat behar duela. Hori lortu dute eta oso inportantea da, baina ez dut uste nahiko indar dutenik planteatu duten estrategia jasangarri egiteko. Gero, hango alderdi politikoen egoera ere ez da ona, azken garaiotan gaitasun gutxi erakutsi dute gizarte zibilak eskatzen dizkien adostasunetara iristeko, horrek prozesua ikaragarri ahuldu du eta nire ustez dagoeneko beste fase batean daude.

Kataluniak asko eragiten du. Hura ongi joan izan balitz, hemen oxigeno apur bat sartuko zukeen; gaizki ateratzen bada, hemengoa ere ahuldu egiten du. Edozein kasutan, herria aktibatzea, indartzea eta hori denboran jasangarri egitea, hori beti da ona herri batentzat. Hala ere, Artur Mas prozesutik ateratzea akats historikoa da.

J. GOIKOETXEA. Ni baikor nago, ez dakit noiz, baina Katalunia joango da. Asko dugu ikasteko handik, batez ere Transizio Nazionalako Batzordeak egindako lanetik. Jakintza handia bildu dute hor eta hori guztia ongi etorriko zaigu guri ere. Hortik aurrera egoerak desberdinak dira. Gu komunitaristagoak gara eta Katalunian liberalagoak. Haien gizarte zibila kohesionatuago dago, ez dira euren alderdiekiko horren leialak eta bozka aldatu egiten dute. Han botoa batetik bestera dabil, eta hori prozesu independentista batentzat ezinbestekoa

da, Eskozian gertatu den bezala. Hemen, gutxi gora-behera 40 urte daramatzagu berdin bozkatzeko, batzuk EAJra eta besteak ezker abertzalera.

ERCK eta CDCk egin duten bezala, hemen ere EAJ eta ezker abertzalea bilduko balira independentziaren alde, itzela litzateke, jendeak bozkatu egingo luke eta han baino irmoagoa litzateke, hemen oso leialak garelako. ERC eta CDC, eta gainera CUP. Hemen, barruan daukan korranteak pozik edukitzeko, EH Bildu bitan zaitu beharko litzateke, batzuek ERC moduko bat sortu eta besteek CUP moduko bat. Baina ezin da, gure historia, gure soziologia eta gure dentsitateak ez du uzten, oraingoz.

Gobernuek, diputazioek, udalek, erakundeek oro har, zer egin dezakete eguneroko beren jardunean estrategia independentista indartzeko?

X. BARANDIARAN. Asko egin dezakete eta gainera egingo duten konfiantza dut. Herri politikak inspiratzen dituzten printzipio eta edukiak klabeak dira herri politika horiek gauzatzerakoan. Adibidez, bada politika industrial bat abertzalea izan daitekeena eta bestea ez. Hezkuntza ere klabea da, aipatu dugu. Komunikabideetan herri estratigiari zor zaion agenda sartu behar da. Politika bi eratan egiten da, modu diskurtsiboan eta egunerokoan, erakundeekin, aurrekontuekin eta bere eragin esparruekin; eremu hauetan garrantzi handia ematen diot adostasun politiko batzuk eskuratzeari epe luzeko estratigian. Adibidez, egon daitezke bi ikuspegi desberdin Gipuzkoako errauskailuari buruz, baina epe luzera industria politikan adostasun batzuk behar dituzu.

J. GOIKOETXEA. Demokrazia batean eskola, familia, sindikatuak... horiek ere erakundeak dira, eta horietatik guztietatik egiten da demokrazia. Desberdintasunak ikusteko begira liteke EAera eta Nafarroara: EAEn euskal estatugintza egin da eta Nafarroan espainiar estatugintza. Euskal demokrazia batean, euskal herritarrek eskatzen duten demokrazia hori mamitzea litzateke logikoena, baina horretarako ahalmen politikoa behar da, eta gure ahalmen politikoa orain prekarizatu eta mugatu egin da. Gero eta botere politiko gutxiago dugu, besteak beste orain neoliberalismoaren ofentsibagatik. ■

Unibertsitate Master Ofiziala

**GIZARTE
EKONOMIA
ETA EKONOMIA
SOLIDARIOA**

Izena ON LINE bidez emango da
UPV/EHU web orrialdean

[www.ehu.es/eu/web/
economiasocialsolidaria](http://www.ehu.es/eu/web/economiasocialsolidaria)

Informazio gehiago
gezki@ehu.es
Tel. +34 943 01 74 98
Antolatzailea:


GEZKI


euskal herriko bilgune feminista

Martin Ugalde Kultur Parkea
Andoain (Gipuzkoa)
☎ 943 59 09 02
www.bilgunefeminista.eus



Euskal Herrian Euskaraz

Kale Berria, 4-6 / 1. ezkerrean · Iruñea
☎ 664 028 604
www.euskalherrianeuskaraz.eus

Paul Bilbao, Kontseiluko idazkari nagusia

“UPN-K ERABILTZEN DUEN ARGUDIO BERBERA ERABILI DU IZQUIERDA-EZKERRAK”

Kontseiluak manifestazioa deitu du Iruñean ekainaren 4rako: *Bide eman euskarari. Euskaraz bizi nahi dugu*. Lau alderdiko gobernuari babesa emateko eta eskatzeko antolatu dute. UPNren oldarraldien aurrean herritarren babesa izango dute, baldin eta neurri ausartak hartzen baldin badituzte. Gobernuak kide den Izquierda-Ezkerraren jarrerak harrিতa dauka Kontseilua.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Ekainaren 4an manifestazioa Iruñean. Gobernuan ez dago UPN. Zergatik manifestazioa?

Zergati horri erantzuteko egokiena manifestazioaren leloari erreparatzea da, *Bide eman euskarari. Euskaraz bizi nahi dugu. Bide eman euskararik baditu bi mezu, bat gobernuari begira*. Badakigu nondik gatozen, gobernu aldaketa egon zenean espektatiba asko sortu ziren, aldaketa euskaratik eta euskaraz izango zela, alegia. Egia da, eta guk esaten dugu, aldaketa batzuk egon dira, beste keinu bat dago gobernuaren aldetik. Euskalgintzatik ikusi dugu, atek irekitzen zaizkigu.

Lehen ez bezala.

Lehen atek ere ez zitzaizkigun irekitzen. Guk beti esaten dugu, egiten diren gauzak aitortu behar dira, baina gure ustez urrats eragingarriagoak eman beharko lirake. Zergatik? Gatozen tokitik gatoz, denok dakigu UPNk zer nolako politika zitala egin duen herritarren aurka. Injustizia horiei guztiei aurre egiteko neurri ausartagoak beharko lirake.

Manifestazioa baliatu nahi dugu gobernuari esateko, “Bide eman euska-

rari!”, eta gu guztiok hor egongo gara. 2010ean egin genuen manifestazioa etortzen zait gogora. “Aski da!”, “Baztertzen gaituzue!”, “Ez dago eskubiderik!” ziren orduko mezuak. Oraingoa bestelakoa da, zentzu positiboa du, “hemen gaituzue” esatera gatoz. Teorian, konplizitatez jardun beharko genuke.

Badakit herritarrentzat agian mezua ulertzea zaila dela, Nafarroan kalera atera garenean salatza atera izan garelako, eta oraingoa ez goaz salatza eskatzera baizik. Iruditzen zaigu aukera errealak egon daitezkeela euskarari bide emateko, euskalgintzaren, gizartearen eta gobernuaren artean.

Leloak bi mezu dituela esan duzu.

Bigarrena, *Bide eman euskarari*, justiazkoa delako, oreka soziala bermatzeko beharrezkoa delako. Nafarroako Gobernuak erabaki interesgarri batzuk hartu izan dituenen (eta hartu izan ditu), harritu gaitu nola oldartu diren sektore batzuk, hain zuzen ere justiziarren izenean hitz egiten duten sektoreak, diskriminazio ezaren inguruan hitz egiten dutenak. Ez, ez, barkatu, ez gaude batere ados. Hizkuntza eskubideen alde egitea oreka sozialaren alde egitea da,

justizia sozialaren eta berdintasunaren alde egitea. Ulergaitza egin zaigu, beste gai batzuetan nola altxatu diren, “bai, bai, Nafarroa justuago bat eta herritarren arteko bereizkeriak eragingo ez dituen Nafarroa behar dugu”, eta hizkuntzari dagokionez gobernuak keinuren bat egin duenean apartheid batzuk amaitzeko, nola aldatu diren!

Zuek uste baino motelago al dabil gobernuak?

Bai. Denok bagenekin UPNk euskararekin bandera egingo zuela, edozein neurri handi edo txiki hartuta UPN oldartuko zela. Oso esanguratsuak izan ziren UPNren Kongresuan Esparzak egin zituen adierazpenak: “Gu gobernura itzultzen bagara eremu ez euskalduneko eskolak itxiko ditugu”. Hori bagenekien. Baina UPN aztoratzen delako gu ezin gara kikildu. Oinarrizko eskubideez ari gara, eta arrazoia daukagu, eta ez naiz termino politikoetan hitz egiten ari, orain oldartu diren horiek justizia soziala aldarrikatzen dutenean gauza bera eskatzen dute. Beste gai batzuetan zelako neurri ausartak edo interesgarriak hartu diren berdintasuna bermatzeari begira, eta euskararen gaian... Batetik,



“Gobernuak erabaki interesgarri batzuk hartu izan dituenean (eta hartu izan ditu), harritu gaitu nola oldartu diren sektore batzuk, hain zuzen ere justiziaren izenean hitz egiten duten sektoreak, diskriminazio ezaren inguruan hitz egiten dutenak. Ez, ez, barkatu, ez gaude batere ados”.

UPNk bandera egin zuen gai horrekin. Bestetik (eta kezka handiagoa sortzen digu), akordio programatikoa sinatu duten lau alderdi horietako baten jarrera ez zaigu logikoa iruditzen.

Alderdi guztiek ez dute jarrera bera. Izquierda-Ezkerrarentzako mezua al da zuena?

Esaten dute gobernu ez dela inoren gobernu. Alderdi guztiek esan didate. Esaten dutena da: akordio programatikoa daukagu eta gobernuari dagokio akordio hori kudeatzea. Baina akordio horrek arazo handi bat dauka, desadostasunak tarteko Euskararen Legeari ez diote heldu. Onartezina da. Hamarkadatan Nafarroako gizartea behin eta berriro aterata da esanez ezin dela onartu Tuterako herritarrari eta Baztan-goari eskubide desberdinak aitortzea. Teorian aldaketarako diren alderdiak mahaiaren bueltan jartzen dira eta... (mahaitik papera erortzeko keinua egin du) jausi egiten zaie. Hala diote: “Ez, hemen desadostasunak daude”. Oinarrizko eskubideen inguruko araudia eta desadostasunen kaxoian sartzen da?

Lau alderdiak ados dauden kontuetan ere kezkak ditugu, zeren adostasune-

tan jartzen zuen UPNk abian jarritako dekretu murriztaileak bertan behera geratuko zirela. Oraindik dekretu horiek indarrean daude.

Zer da premiazkoena?

UPNk dekretu bidez, beraiek deitzen dioten eremu mixtotik euskara desagerraraztea lortu zuen. Dekretua sortu eta hurrengo egunean, Nafarroako administrazioko eraikin guztietatik kendu zituzten euskarazko errotuluak. Hori indarrean dago oraindik Nafarroan.

Premiazkoena dekretu hori bertan behera uztea da. Gobernu hartu eta lehenengo egingo zuten gauza izango zela uste nuen. Dekretu horrek karga sinboliko handia izan du Nafarroan: “Euskara ez duzu ikusi ere egingo”.

Izquierda-Ezkerraren jarrerak harritu zaitu.

Jarrera batzuk ez datoz bat beraien oinarrizko printzipioekin, eta zilegi bekit halako gauza bat esatea. Iruditzen zait hizkuntza eskubideen inguruan esaten dituztenak oinarrizko printzipioen kontra doazela.

Euskararen Legea soilik ez, zerrenda bakarra, lan deialdia... horiekin ere gertatu da. UPN badakigu zer den, bai-

na harrigarriagoa izan da beste alderdi batzuen jarrera [Izquierda-Ezkerra eta Podemos]. Oso larria da. UPNk erabiltzen duen argudio berbera erabili du Izquierda-Ezkerrak. Euskararen Legearen aldaketa Izquierda-Ezkerrak sustatu zuen. Zuk corpus juridikoan aldaketa bat egingo baduzu, jakin behar duzu aldaketa hori egikaritzeko neurri politikoak hartu beharko direla. Zuk uste baduzu Fustiñanan edo Cascanten eskola publikoan euskaraz ikasteko eskubidea bermatu behar dela, pentsatu behar dut ohartuko zarela hango lanpostu batzuetan euskara jakitea derrigorrezkoa izango dela, irakasleak beharko direla. A ez, hori diskriminatzailea da. Orduan nola bermatuko dituzu eskubide horiek? Faborez, serioak izan behar dugu. Ezin gara ibili argazkiaren bila, esanez, “gu izan gara eremu ez euskaldunean eskola publikoetan umeei euskaraz ikastea ahalbidetu dugunak”. Bai, baina neurriak hartzen hasi eta aztoratu egiten zarete.

Oraindik ia hiru urte geratzen zaizkio gobernuari.

Erabaki ausartenak hasieran hartu behar dituzu. Lehenengo urtean erabakiak hartuta, gero badituzu beste hiru urte modu pedagogikoan azaltzeko zergatik egin duzun hori. Bestalde, lehenengo urtean hartutako erabakiak hurrengo hiru urteetan lausotzen dira. Erabaki hura, hain potentea zena, azkeneko urtean erdi ahaztuta dago. Eta azken urtea urtegiak zabaltzeko da.

Aukera galdua izango al da agintaldia?

Sinesbera naiz. Itxaropena daukat. Horregatik erabaki dugu manifestazioa egitea. Ez goaz salatzeraz. Zure lehenengo galdera oso logikoa zen, UPN ez dago eta manifestazioa? Uste dugu oraindik aukera errealak daudela, borondatea baldin badago. Horregatik, gizartearen zati handi bat, euskaraz bizi nahi duen gizarte hori, laguntzeko prest dagoela erakutsi nahi dugu. Zaila da azaltzen baina oso jite desberdina daukate oraingo manifestazioak eta 2010ean egin genuenak. Oraingoa agian zailagoa da jendea transmititzea. Askoz errazagoa da “UPN kanpora!” esatea.

Manifestazio hau da gobernuari erakusteko neurri ausartak hartzen baldin baditu babes soziala izango duela, babesa izango duzu eta eskatzen dizugu neurri ausartak hartzea. ■

ALDAKETA TXIKIAK NAFARROAKO EUSKALGINTZAREN PATRIKETAN

Aldaketaren Gobernuak gehiago egingo zuela uste zuten Nafarroako euskaltzaleek, diruari dagokionez behintzat nabarmen gehiago. Urrats garrantzitsuak egin direla ere ezin uka, esanguratsuena D eredia “eremu ez euskaldunera” zabaltzearena. Baina askoz gehiago behar da, hori adieraziko du euskalgintzak kalean ekainaren 4an.



Xabier Letona
@xletona

Txerri goseak ezkurra amets, dio esatera zaharrak eta txerriak laster jango du kilo bat ezkur, asetzeko hamar beharko baditu ere. Nafarroako euskalgintza gosez amorratua dago oso aspaldi, bestelako politiken zain, eta hauek bestelako aurrekontuak ekarriko zituztelakoan. Usteak erdi ustel, ordea. Nafarroako Gobernuak 2,1 milioi euroko aurrekontua bideratu zuen Euskarabidera 2015ean eta aurten 4 milioi euro.

Ehunekotan igoera ez da txantxetako, ia ehuneko %100ekoa, baina oinarria hain kopuru txikietatik abiatzen denean ezer gutxitan gelditzen da. Zertaz ari garen ulertzeko, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek 2014an 154 milioi euro bideratu zuten euskararen sustapenera. UPN eta PSNrekin larri ibili da beti euskalgintza Nafarroan, onarpen publikorik gabe eta itolarrian, baina azken urte luzeetako egoerak markak hautsi ditu.

Horrexegatik aldaketa politikoa ezinbestekoa zen bizirauteko eta etorri denean, ametsak nafar zeruetako linboan geratu dira. Aurreko egoerarekin erkatuta, Gobernu berriarekin euskaldunak izan du jauzi oso garrantzitsua onarpen eta presentzia publiko eta instituzionalean, baina ez dirutan, eta gobernuko funtzionarioenak nola IKA eta AEK-ko irakasleek eta haien familiek ere, esate baterako, behar dute zer eraman haien ahotara.

Euroa gorabehera, Euskarabideak aurten jasoko dituen 4 milioi eurotik 2,9 milioi erakundeak berak behar ditu bere egiturari eusteko. Geratzen dena hala banatuko da: euskalduntze-alfabetatzea, AEK eta IKA (400.000 €); udalek euskara erabiltzeko eta sustatzeko (300.000 €); euskarazko idatzizko eta on-line hedabideak, eta irratia (290.000 €).

Nafarroako Gobernuak Komunikazio zerbitzuak 150.000 € bideratuko ditu euskarazko ikus-entzunezkoen produktiora. Beraz, gutzira 1.250.000 euro banatuko dira aurten. Asko da 2015ean banatutako 376.000 euroekin edo 2014ko 147.000 euroekin konparatuta. Erabat eskas gutxieneko duintasunera ere iristeko. Deialdia egunotan egitekoa da, eta egina izango da lerrook argia ezagutu orduko.

Aipatu azken zenbaki horiek ikusita, argi da ataka estutik zetorrela euskalgintza Nafarroan. Bere txikian, 2000 eta 2001ekoak izan ziren uterrik oparoenak, hortik aurrera gainbehera. 2002an onartu zuen Euskararen Foru Dekretu berria Nafarroako Gobernuak, euskalgintza setio egoeran jarriko zuen XXI. mendeko foru arma. Kontseiluak plazaratutako datuetan, adibidez, 2009ko aurrekontuetatik 3,1 milioi euro jaso zituen Euskarabideak eta 2,3 milioi 2012an. UPNren bakardadearen ondorioz, hurrengo hiru urteetakoak aurrekontu luzatuak izan ziren, baina Euskarabiderako dirua 2,1 milioira jaitsi zen.

Legen gaintetik Barcina, beharren azpitik Barkos

Herritarren ulermenerako ulergaitzak direnak gertatzen ziren UPNren azken urteetan. Esaterako, euskalduntze-alfabetatzeak 2013, 2014 eta 2015ean 245.000 euro zituen jasotzeko aurrekontuetan, baina inoiz ez zituen patrikaratu. “Bai, arazo teknikoak ditugu” erantzuten zien UPNko ordezkari Alberto Catalanek IKA eta AEK-ko ordezkariari. Baina dirua ez zen iristen eta hurrengoan Euskarabideko zuzendariak adieraziko zien ea “mugitu zeza zuten piska bat Legebiltzarra”... Kontua da euskalduntze-alfabetatzerako dirua beste gauza batzuetan gastatuta alde egin zuela Yolanda Barcinak Nafarroako Gobernutik. Uxue Barkosen gobernu berriak 131.000 euro bildu zituen azkenean 2015aren amaierarako euskalduntze-alfabetatzerako. AEK-k eta IKAk 600.000 eskatzen diote Gobernuari, hiru urte haietan jaso ez zutena.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak kritika gogorra egin die aurtengo aurrekontuei, bere uestez egokiak izateko Nafarroako aurrekontu orokorren %2 gainditu beharko lukete. Egungo kopuruak oso urruti daude langa horretatik: 2014koa 0,05ekoa izan zen, 2015ekoa 0,06koa eta 2016koa 0,1ekoa.

Euskalgintzaren ikuspegitik, beraz, 8 milioi euroko aurrekontua beharko luke 2017an Euskarabideak euskarak behar dituen gutxieneko duintasunez helatzeko. Nafarroako euskalduntze-alfabetatzetik dagoeneko adierazi diote Eus-

» Kontseiluaren ustez, Nafarroako aurrekontu orokorren %2 gainditu beharko lukete diru-laguntzek. Egungo kopuruak oso urruti daude langa horretatik: 2015ekoa 0,06koa zen eta 2016koa 0,1ekoa da



karabideari 2017rako 2,2 milioi euro beharko dituztela. Hizkuntzei bideratutako sotesan badira irensgaitzak diren zenbakiak Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan, Kontseiluak 2015aren amaieran egindako txostenean aipatzen da horietako bat: Hezkuntza Konstseilaritzako diru banaketetan, "Euskara Saira"ri 477.837 esleitzen zaion bitartean, "ingelesa eta atzerriko hizkuntzetara" -ingelesa ez da atzerriko hizkuntza, antza- 525.040 euro bideratzen dira.

Bitxikerien artean dago, halaber, Nafarroako idatzizko hedabide eta irratiei gertatuko zaiena. Orain arte Eusko Jaurlaritzatik jaso izan dute diru-laguntza, baina 2016rako honek ez ditu diruz lagunduko, Nafarroako Gobernuak bereak banatuko dituelako. Azken honetatik jasoko duten diru kopurua (300.000 €), aldiz, Eusko Jaurlaritzatik orain arte jasotakoa baino txikiagoa izango da. ■



Kontseiluak ekainaren 4rako antolatu du manifestazioa Iruñean Nafarroako Gobernuari euskararen aldeko urrats sendoagoak eman ditzan eskatzeko. Sostengu eta presio, biak uztartuko dira hiriburuan.

ZUBIETAKO ERRAUSKAILUAREN ORBANA GURE OSASUNEAN

Hondakinak erretzea munduan egin dezakegun gauzarik arrisksuenetako bat da. Prozesu horretan milaka substantzia kimiko sortzen dira, horietako asko osasunerako oso toxikoak. Zubietako errauskailuak gipuzkoarrei ekarriko dizkien arazoez ohartarazteko, maiatzaren 29an osasunaren aldeko giza katea egingo dute Donostiako Gipuzkoa plazatik Onkologikora.



Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Markel Olanoren foru gobernuak Zubietan errauskailu bat jartzeko asmoa berriz erakutsi duenetik, proiektuak gipuzkoarrei ekarriko dien kostuaz larrituta biderkatu egin dira kontrako mugimenduak. Gipuzkoako Hondakin-en Partzuergoak duela gutxi onartu du plana: 200.000 tona hondakinentzako errauskailua, tratamendu mekaniko-biologikoko eta zepak balioztatze zentro bana, eta biometanizatze planta bat izango lituzke; hondakin kudeaketa esku pribatuetan utzi eta lurraldeari datozen hogeitau urteetan gutxienez 1.216 milioi euroko zama eragingo dio.

Kostu ekonomiko itzelaren inguruko datuak argitzeko gero eta premia gehiago dagoenean, erraustegiak gipuzkoarren osasunean eragingo duen minaz kezka handia sortu da. Maiatzaren 7an GuraSOS aurkeztu zuten, errausketak umeengan sor ditzakeen gaitzez arduratutako guraso, amona, aitona eta izeba-osaben elkarteak: "Nire haurrentzat nahi ez dudana, beste inoren haurren-

tzat nahi ez dudalako", azaldu dute euren manifestuan.

Bestetik, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak maiatzaren 29an osasunaren aldeko giza katea antolatu du Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregitik Onkologikora. 5.000 lagunekin lotu nahi dituzte batetik bestera dauden bost kilometroak. Duela gutxi Euskal Herrian izan da Rossano Ercolini, Goldman Price nazioarteko ingurumen sariaren irabazle eta Italiako errausketaren kontrako liderretako bat, eta berak garbi du: "Arriskurik txikiena hartzea ere ez da onargarria". Datorren asteko ARGIAN elkarrizketa zabala eskainiko dugu Ercolinirekin.

Ekonomia zirkularrarekin batera, osasuna babesteko beharrak ekarri du Europar errausketa alboratzeko joera gero eta nabarmenagoa. Irlandako Cork hiritik gertu errauskailua eraiki nahi duten Ringaskiddy da borroka-zelai nagusietakoa oraintxe, eta bertan Gordon Reid Corkeko Unibertsitateko irakasleak Eu-



ropa mailan 2011n egindako azterketa baten emaitzen berri eman du: Italia, Eslovakia eta Ingalaterrako errauskailuetan hartutako laginen arabera, 2,2 milioi lagun ingururen bizi itxaropena 7.600 urte jaitsi liteke errausketaren ondorioz. Ikerketa babestu dutenen artean Munduko Osasun Erakundea bera dago. Gurean, antzeko azterketei buruzko informazioa eskaintzen dihardu aspaldion Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak (OEIT).

Minbiziak, malformazioak eta eritasun kronikoak

2002an azaldu zen publikoan lehen aldiz OEIT, Txingudin egin nahi zuten errauskailuak ekar zitzakeen ondorioak aztertze asmoz. Proiektua bertan behera geratu zen arren, isilpean lanean jarraitu dute, eta dozena urte geroago konklusioa bera da: erraustea minbiziarekin eta hilkortasunaren handitzearekin lotzen da.

Hamarkada honetan kalitate metodologiko kontrastatuarekin egindako 17



GuraSOS elkarteak Zubietatik kilometro gutxira dagoen Lasarte-Orian aurkeztu zuten, errauskailuak haurren osasunean izan dezakeen eraginaz kezkatuturik.

GURASOS

ikerketaren emaitzak aztertu dituzte. Medikuek batez ere nabarmendu dute Madrilgo Carlos III.a Osasun Institutuko epidemiologia zentroak 2012an argitaratutakoa: estatistikoki minbiziagatik hiltzeko arrisku handiagoa dute erraus-tegitik 5 kilometro edo gertuago bizi diren herritarrek. Pleurako minbizia kasuak %84 handitzen dira, besikulakoak %24 eta leuzemiak %21, besteak beste.

Baina badaude lotura hori berresten duten ikerketa gehiago. Errauskailuen 3 kilometroko erradioan minbiziaren gorakada %3 eta %50 artekoa izan litekeela dio 1983 eta 2008 artean egindako bategen, eta beste baten arabera tximinetako filtroetatik iragazten diren mikropartikulengandako esposizioak, pankreako minbizia areagotzen duela –%40 emakumeen eta %92 gizoneen artean–.

Eskoria eta errautsetan pilatzen diren dioxina, furano edota metal astunez asko dakigun bezala, erraus-tegi batek tximiniatik botatzen dituen atmosferako gasen eta mikropartikulen –erretzen den

hondakin masaren %60– inguruko ezezagutza handia da oraindik; medikuek ikusi dute arnas aparatuko eta bihotzeko gaixotasunetan eragina dutela.

Zubietako erraus-tegiaren sustatzailuek europar araudiak ipinitako mugaren azpitik isuriko duela diote. OEITeko bozeramaileetako bat den Jose Cruz Ruiz Villandiegok alferrikakotzat du hori ordea: “Mugak jarrita ere, gorpuzak oso diferentek dira jasotzen dituen dosiak onartzeko edo gaixotzeko, esaterako heldua izan edo haurra izan”.

Hain justu, haurrak eta fetuak dira errausketarekiko kalteberenak: alerazio endokrinoak, eta hormonalak, eragina garapen neurologikoan... 2014ko ikerketa batek sortzetiko malformazioetan jarri du azpimarra: erbi-ezpainarekin jaioko diren haurren kopurua %30 handituko da eta giltzurrun displasia izango dutenena %55.

GuraSOS elkarteak Google Maps-en kokatu ditu Eusko Jaurlaritzak errauskailuari aitortzen dion 30 kilometro-

ko “eragin eremuaren” barruan dauden 200 hezkuntza zentro baino gehiago: “Mediku eta zientzialariek diote arriskua badagoela eta Gipuzkoako Diputazioari eskatzen diogu prebentzioz geldiarazi dezala Zubietako proiektua”, azaldu du elkarteko kide Xabier Arrutik Info7 irratian. Horretarako sinadura bilketari ekin diote eta maiatzaren 21ean informazio jardunaldiak egingo dituzte Hernaniko Orona-Ideon. Bertan izango da Clara Perales, Madrilgo Valdemingómez errauskailuaren kontra salaketa jarri duen biktimitako bat. Perales arnas eta alergia arazoekin hasi zen eta immunologia sistema kaltetu ondoren minbizia sortu zitzaion.

Italian 2013an eta 2015ean argitaraturiko ikerketa banak erakutsi dute haurdun dauden emakumeen erditze goiztiarrarekin eta nahigabeko abortuarekin lotura duela errauskailuen kutsadurak. Emakumeak bereziki zigortzen ditu errausketak, euren gorpuzak gantz gehiago duelako sortzez, eta

PIETRASANTA: EUROPAKO ERRAUSTEGI “SEGURUENA”?

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Rossano Ercolini Goldman saridunak Heranira egindako bisitan oroitarazi zuen be-launaldi berriko erraustegi seguruaren ikur izan zela Falascaia... eta falazia izan zela. Lucca probintziako Pietrasanta 1974an jarri zuten erraustegia –Falascaia deitua–. Herriak 1.500 biztanle ditu eta denek izan dute gertukoren bat minbiziak jota.

Mobilizazio etengabeen presiopean, urteetara onartu zuten Herriko Osasun Unitateak eta Toskanako Ingurumen Babeserako Agentziak herritarrek aspaldidanik salatzen zutena. Erraustegia itxiko zela zirudienean, hango ahaldun nagusiak, Vannino Chitik, agindu zuen zaharren ordez berria egiteko, eremu berean. 1997an ehunka herritar erraustegiaren ateetan eseri ziren sarrera galarazteko.



Pietrasantako “herri harresiaren” bideoa ikusgai dago Argia.eus-eko ‘Garialea’ blogean. Bertan duzue artikulua osorik.

Ercolinik gogoratzen ditu politikarien eta osasun publikoak babesteko erakundeen promesak: “Europako sistema kon-

trolatuena zela, dioxina isurketak eten-gabe neurtzen zituelako ...”. Handik urte gutxira kudeaketa TEV Veolia multinazional frantziarraren esku geratu zen: “Bitarte horretan, gutun anonimo bat iritsi zen epaitegira –boterea galdu zuen norbaitek mendekuz bidalia, inondik ere–. Gutun horrek salatu zuen emisioak kontrolatzeko sistemari software bat jarri ziotela, kopuruak hamar aldiz gutxitzen zituena –Volkswagen autoen antzera–, emaitzak baimenaren barruan egon zitezela beti”. TEVeko arduradunek 4.000 euroko isuna baino ez zuten jaso. Herritarrentzat porrota izan zen. Baina ekarri zuen garaipenik ere: erraustegiko baimena urtebete eta erdira eten egingo zela jakinarazi zuten agintariek. Gainera, ordurako labeak itzailita zeuden: ia egunerokoak ziren herritarren mobilizazioen eraginez, erraustegia praktikan 2010ean itxi egin zen.

dioxinak bertan disolbatzen direlako. Gainera, amak haurrari bularreko esnearen bidez pasatzen dizkio gantzetan metaturik dituen gai toxikoak. Hori ei da kutsadura neurtzeko adierazlerik lazgarriena, Eduard Rodriguez Farré fisiologian adituarentzat.

Rodriguez Farrék esperientzia handia du biomedikuntzaren arloan –bere iritziak *Salvados* moduko programetan azaldu izan dira– eta abenduan Andoainen izan zen errauskailuen toxikotasunaz mintzatzeko. Bere esanetan, ikerketa epideiologikoak egiteak urte askoko lana eta zorroztasuna eskatzen ditu.

“Bonba kimiko bat” etxe ondoan

Fisiologo katalanak esandakoa jakinik, bat baino gehiago harri eta zur geratu zen martxoaren 7an *Noticias de Gipuzkoa* egunkariaren azal nagusiarekin: “Un estudio de Osakidetza concluye que la incineración no supone un ‘riesgo significativo’ para la salud”. Aipatu txostena 2004koa da, ez da inongo aldirik zientifikotan publikatu eta OEITeko medikuek arrakala ugari ikusi dizkiote. Iñigo Suberbiolak Donostian errausketaz GUE/NGL Europar Parlamentuko taldeak egindako konferentzian azaldu zuen txostenak “tranpa dialektikoa” egiten duela baldintzazko esaldiekin:

» Emakumeak bereziki zigortzen ditu errausketak, euren gorputzak gantz gehiago duelako sortzez, eta dioxinak bertan disolbatzen direlako

“errauskailuak berriak balira”, “legea errespetatuko balute”...

Gipuzkoako Aldundiak Biondonostia- ren esku jarriko omen du Zubietako azpiegituraren inguruko osasun zainketa. Inplizituki onartu izanak errauskailu- rekin osasun arriskuak egon daitezkeela, hautsak harrotu ditu. Errausketaren kontrako taldeek herritarrak frogak egiteko “akuri” moduan erabiltzea egotzi diete foru agintariei.

“Azpiegiturak teknologia eta segurtasun kontrol aurreratuenak izango ditu”, esan berri du Markel Olano diputatu nagusiak, Anberesen lehertutako errauskailu bati buruz interneteko *Osoigo* zerbitzuan galdera egin diotenean. Istri-

puaren bideoa lau haizetara zabaldu da ARGIAk haren berri eman ondoren, eta gurean halako hondamendi bat gertatzeko kezka sorrarazi du.

Azken urteetan hamarnaka ezbehar gertatu dira. 2013an, adibidez, sute handi batek Marseillako Fos-su-mer errauskailua hartu zuen. Gertaera horrietan izaten den kutsadura-ihesa ez da nolana hikoia. 1976an Italiako Seveso herrian planta kimiko batean izandako ezteandaren ondorioz milaka tona TCDD aireratu ziren –egon daitekeen dioxinarik kutsakorrena–, eta gerora egindako estudioetan ikusi da minbizi kasuak ugaritu egin direla eskualde osoan.

“Errauskailuak benetako bonba kimikoak dira” esan izan du Villandiegok, ez Anberesen edo Marseillan gertatuagatik soilik, egunerokoan eta eremu oso zabalean ekar dezakeen etengabeko kalteagatik ere bai. Ringaskiddyn orain gutxi aurkeztu dute errauskailuak sortuko duen kutsaduraren simulazioa –horrelako ingeniari- lanak egiten dituen Plume Plotter taldearen eskutik–, eta Corkeko badia osoa estaltzen du laino toxikoak. Nolako orbana sortuko luke Zubietako tximiniak Gipuzkoako mapan? Ipar-mendebalaren edo bailare- tako korronteen kapritxoan utziko al dugu gure seme-alaben osasuna? ■



ERRAUSTEGIAREN
AURKAKO MUGIMENDUA

Izena emateko:
www.erraustuez.org

ONKOLOGIKOA - DIPUTAZIOA



MAIATZAK

29

11:30ean

OSASUNAREN
ALDEKO
GIZA KATEA
ERRAUSTEGIAREN KONTRA

ONKOLOGIKOA - DIPUTAZIOA

IKASTOLAKO JOLASTOKIA AMESTEN

Grisa eta iluna dela, futbolak protagonismo larregi duela, natur gune gehiago nahi dituztela... Hurrek beraiek eskolako jolastokia aztertu eta eraldatzeko proposamenak egin dituzte Durangoko Kurutziaga ikastolan. Jolaserako eta harremanetarako espazio anitzak eta aberatsak lortzea da helburua.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: KURUTZIAGA

Ibaizabal ikastola durangarrarekin batera, aurtengo Ibilaldia antolatzeaz arduratu dira Kurutziagan. Horrez gain, proiektu interesgarria dute martxan: jolastokia birpentsatzea. Azken finean, eremu hezigarri bat gehiago dela eta hurren arteko harremanetan eragin handia duela argi dute ikastetxean. Kurutziagako kanpo-espazioak ohiko ereduari erantzuten diola ikusi zuten: futbol eta futbito zelaiek –eta bigarren maila batean saskibaloï kantxak eta frontoiak– hartzen dute leku gehien, eta harreman desorekatuak eragiten ditu: mutilek espazio nagusia okupatzen dute –batez ere beraiek dira futbolearen aritzen direnak– eta bazterretan geratzen dira neskak, harmailetan, eskaileretan...

Ikasleei galdetuta ere, ondorio berdinetara iritsi ziren. “Eremua nola antolatzen dugun, horren arabera da jarduna: futbito eta futbol zelaia baldin badituzu erdigunean, horiek gailenduko dira beti. Futbolik gabekoa eguna dugu, baloirik gabekoa, bestelako jolasak egin ahal izateko margotu dugu futbito-kantxa... baina alferrik. Futbol eremuan umeak beste zerbaitetan ari badira, alde egingo dute futbolearen jokatu nahi duen talde bat agertu bezain pronto”, kontatu digu Gaizka Uriarte irakasle eta egitasmoaren bultzatzaileak. Egoera aldatzeko espazioa aldatu behar, eta horri ekin diote, aukera baliatuz jolastokian naturarekiko harremana ere handitzeko.

Tirolina, hareatza, jolas libre, gune lasaiak...

1.000 ikasle inguru ditu Kurutziagak eta ikasleen beraien parte-hartzea funtsezkoa izan da proiektuan (batik bat Lehen Hezkuntzakoak aritu dira buru-belarri). Egoeraren azterketa deskriptiboa eta kritikoa hurrekin batera egin dute –ea nahikoa espazio al duten txikienek, ea neskek eta mutilek hartzen duten esparrua orekatua den...–, eta gero amesteko tenorea iritsi da: desiratutako guneak marraztu dituzte hurrek, gelaka eta mailaka elkarren artean adostu dute kanpo-espazioaren diseinua, eta maila bakoitzak amestutako jolastokia irudikatu du, mural batean, maketa bidez, plastilinarekin, argazkiak erabiliz... “Gure lana izan da proposatu dituzten gauza horiek teknikoki errealitatera nola eraman aztertzea, eta eskaeraren bat edo beste izan ezik, egingarria da proposatu duten guztia”, diote Iratxe Txintxurreta eta Celia Imaz gurasoek. Izan ere, gurasoak ere egitasmoaren parte dira.

Eta zer da ikasleek amestu dutena? Lehenengo kritika izan da oso grisa eta iluna dela jolastokia, bizitasuna eta kolorea behar dituela. Natur gune gehiago eskatu dituzte, naturari lotutako ekintzak, ortuak protagonismo handiagoa hartzea; “marrazkietan argi ikusi dugu: berdea da nagusi”. Zuhaitzetara igotzeko sokak edota zubi tibetarrak eskatu dituzte eta jolastokia inguratzen duten berdeguneak eta ar-

bolak aprobetxatzea izango da gakoa. Natur guneak ikerketa gune ere izatea gura dute, jolastuz, landareak aztertuz... Baita bizitza islatzeko modua ere, jolastokia aldatzen joango delako urtaroekin batera, hosto berri eta galduen bidez, koloreen birtartez... Gainera, egurra izango da nagusi, ahal dela plastikoa baztertu eta elementu naturalak nahi dituztelako inguruan.

Ikasleen beste eskaera bat da futbolari eskainitako eremua murriztea eta beste kirol batzuei aukera ematea (eskalada, ping-pong, boleibola, patineta...). Futbito eremua mantendu eta futbol-zelaia kenduko dute, zelaia belarrez bete eta gune anitzak sortzeko, tartean lasai egoteko espazioak eta aterpetxoak (mahai-jolasetan aritzeko adibidez), baloia jotzeko arriskurik ez duten txoko lasaiak eskatu dituztelako ikasleek. Ez da egon mutil bakar bat ere, ezta neskarik ere, futbol-zelaia kentzeagatik kexatu denik. “Aldiz, desadostasunak guraso batzuen aldetik iritsi zaizkigu, eskolaz kanpo haurrak futbolearen dituzten gurasoengandik; baina ezin dute halako egitasmo baten aurka joan”.

Jolas libre –eta ez bideratua– sustatzeko gune ugari izango dira: enbor batek adibidez askorako eman dezake, berdin txukundu egingo duten hareatza gune zabalak, hondarrarekin nahieran aritzeko, edota urak. Izan ere, urak presentzia nabarmena izango du eta drainatze-sistema on batekin, batez ere udaberri eta udan urarekin dibertitu ahalko dira.



Futbolari eskainitako eremua murriztea eta beste kirol batzuei aukera ematea eskatu dute ikasleek, baita natur gune gehiago eta naturari lotutako ekintzak ere. Irudietan, ikasleek amestutako jolastokiaren maketa, eta umeak jolasean, gaur egungo jolastoki zabalaren guneetako batean.

Jesarlekuak jarriko dituzte, eguzkitik babesteko gerizpe gehiago egongo da -itzala emango duten zuhaitz sendoak- eta anfiteatro modukoa sortuko dute gain batean, klaseak emateko, ikuskizunak egiteko... "Antzerkiak garrantzi handia du gure ikastetxean", azpimarratu du Uriartek. Txirrista berriak ere izango dituzte haurrek, luzeak eta zabalak, kolektiboak, ume bat baino gehiago sartzeko, halakoak eskatu dituztelako. "Jolastokia ez da guttiz laua, erliebeak ditu eta hainbatentzat arazo izan daiteke, baina guretzat erronka da; esaterako txirrista eta tirolina jartzeko aukera errazten digu pendizak", dio Txintxurretak.

Dena lotuz, testura ugaritako ibilbidea

Gune eta eskari guztiak lotuz, ibilbide bat trazatuko dute, bidegorriaren gisakoa, eta testura, material eta kolore ezberdinak izango ditu ibilbideak: harea, hartxintzarra, asfaltoa... Erabilera anitzak izan ditzala da asmoa, leku batetik bestera mugitzeko, jolasteko, patinetan edo lasterka aritzeko... Bide nagusiak 375 metroko luzera eta bidezidor ugari izango ditu. Zentzumenen ibilbidea izatea ere gura dute, bidean zehar zentzumenak lantzeko aukera egotea. Zarataren kudeaketa nabarmendu dute elkarrizketatuek, zarata saihestuko duten gune lasaiak tartekatuko baitira ibilbidean zehar.

Amaierarik gabeko proiektu ireki eta bizia

Behin amestuta, Udalarekin hitzarmena lotzeko eta aurrekontua zehazteko garaia da. Horretan ari dira eta gurasoen laguntza ezinbestekoa da; Celia Imaz eta Iratxe Txintxurreta arkitektoak dira eta ingeniaria eta paisajista ere badituzte taldean. Lehenengo obrak egin, eta ondoren espazioa auzolanean eraikiko dute, heldu eta haurrek batera. Bizpahiru urtetan oinarri nagusiak finkatuta izatea aurreikusten dute, baina egitasmoak ez du amaierarik, urtero berrikustea eta nahi eta beharren arabera moldatzen joatea baita xedea, zerbait malgua, irekia eta bizia izatea.

Ziur daude gure hiru elkarrizketatuak: espazio anitzak eskura jarrita gehiago



» Espazio anitzak eskura jarrita gehiago nahastuko dira denak, jolas mistorako aproposa izango da eta neska-mutilen arteko harremanak aberastuko dira, baita adin ezberdinekoen artean ere

nahastuko dira denak, jolas mistorako aproposa izango da eta hartu-emana zabaldu eta harremanak aberastuko dira, neska-mutilen artean, eta baita adin ezberdinekoen artean ere. ■

**GUSTORA ETA ZENTZUZ
OSPATU DAGIGUN
IBILALDIA !!!**

**ADIKZIOEN
PREBENTZIOA**

☎ 94-620.05.20



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

momotxo
laberna

Plateruen plaza, 12
Durango
Tel. 94 681 10 06

Irudian, Iruñeko Izartegi haur eskola. Senideentzako eremuak dituzte ikastetxean: "Gurasoek beren seme-alabekin igaro ditzakete bi ordu arratsalderen batean".



ESKOLA HERRITARRAK ETA PARTE-HARTZAILEAK BULTZATZEN

Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko Sortzen elkarteak 25 urte egin ditu aurten eta urteroko jaiaz gain –Hernanin izango da aurten, *EskolHarria* biharko herria lelopean–, hainbat ekintza antolatu dituzte hilabeteotan. *Eskola herritarrak eta parte-hartzaileak* mahai-inguruan izan gara, Mariam Bilbatua HUHEZIKo irakasle ohia eta Gari Torregrosa Iruñeko Izartegi haur eskolako zuzendaria entzuten.



Ane Urkola Agirrezabala

@irrikaz

ARGAZKIA: IZARTEGI HAUR ESKOLA

Mariam Bilbatuak hartu du hitza lehenengo. Bere esanetan, dimentsio bikoitza ematen dio eskola parte-hartzaileak hezkuntzari: ikastearen dimentsioa eta elkarlanean aritzearen dimentsioa. "Estrategia sozialak dira bizitzeko aukera ematen digutenak; bestearekin elkarrekin hazi eta hezten gara, eta horrela eraikitzen dugu gure ikaste prozesua eta garatzen ditugu konpetentziak".

Era berean, dio, bi ulermen mota garatu behar ditu gizakiak: ulermen in-

telektuala eta giza ulermena. Ulermen intelektuala da ingurua ezagutzea; giza ulermena berriz, bestea ulertzea da, besteen arazoekiko enpatia izatea. "Gauza horiek ez dira berez ikasten, eta hezkuntza-erronken barruan sartzen da ezaugarri horien garapena".

Ikaskidetz

Ikasle-irakasleak ikaste prozesuan inplikatzeko, ikaskidetzan oinarritzea da giltza, esaterako talde kooperatiboetan lan

eginez. Ikasleen identitatea, autonomia eta konpromisoa areagotzen du horrek, Bilbatuaren hitzetan. Talde lanak, ordea, ez du bermatzen ikasle guztien parte-hartzea: ikaskidetzaren printzipioak dira emozioekin lotutako ikas-prozesuak martxan jartzea, taldean eraikitako eta negoziatutako helburu partekatutako izatea eta taldea osatzen duten pertsona guztiak ezinbestekoak direla sentitzea.

Ikasleez gain, irakasleen integrazioa lortzea ere izan behar da helburua. Ira-

kasleek hausnartu behar dute martxan jarri dituzten prozesuen inguruan, eta irakasleek talde identitatea sortu behar dute: "Erronka baten partaide sentitu behar dute, eta erronka horren erantzukizunak taldearena izan behar du, ez norbanakoarena".

Gehitu du Heziberri eta LOMCE beza-lako legeek irakaslearen dependentzia areagotzen dutela eta goitik beherako ereduak ez dutela irakaslearen inplikazioa lortzen: "Eredu horiei aurre egiteko behar ditugu ikaste komunitate profesionalak". Komunitate hauek eztabaida eta hausnarketa dituzte ardatz, eta eza-gutza partekatzeo hizkuntza bateratua dute: "Gauzak aztertzeo eredu bera- ren barruan kokatzen dute komunitate- a". Talde konpromisoa da funtsa eta profesional bakoitzak sentitzen du ki- dearen beharra, denen parte-hartzea ahalbidetuz eta elkarrenganako kon- fiantzatik abiatuz. Komunitateak sortze- ko, baina, instituzioen babesa behar da: "Irakasleek lan egonkorra behar dute, ikas-komunitateak garatzeko aukera eta baldintzak izango dituztenak". Adminis- trazioaren konfiantza ere inportantea da: "Kontrol burokratikoaren sistema bul- tzatzen dute administrazioetik eta ho- rrek ez du laguntzen horrelako proiektu- ak garatzen".

Hezkuntza komunitatea = hezkuntza formal, informal eta ez formala

Hezkuntza ez formalak (aisialdiak, kom- unikabideak...) eragina du ikaslearen formazioan eta garapenean. Irakasle ohiak azaldu du eskola komunitateak kontzientzia horretatik garatu behar direla, eta horretarako, beharrezkoa da hezkuntza sareak sortzea: "Eragile sozial, politiko eta kulturalek eta hez-

» Emozioekin lotutako ikas-prozesuak martxan jartzea, taldean eraikitako eta negoziatutako helburu partekatuak izatea eta taldea osatzen duten pertsona guztiak ezinbestekoak direla sentitzea; horra ikaskidetzaren printzipioak

kuntza komunitateak helburu komunak behar ditugu". Hala, hezkuntza formal, informal eta ez formalean aritzen diren eragileek gogoeta bultzatu behar da: "Eragile guztien parte-hartzea bermatu behar dugu, eta hori ahalbidetuko duten mekanismoak garatu". Martxan jartzen diren proiektuak sozializatu eta ebalua- tu behar dira, bere ustez.

Iruñeko Izartegi, eskola parte-hartzailerantz

"Familiok eta hezitzaileok batera sor- tzen dugu proiektua eta denok helburu bera dugu: haurrean ongizatea". Gari Torregrosa Iruñeko Izartegi haur esko- lako zuzendariaren hitzak dira. 1976an jarri zuten martxan haur eskola, herri mugimenduaren eskariak bultzatuta. 1995. urtean momentu zailak izan zi- tuen, baina gurasoen eta hezitzaileen borrokari esker, ez ixtea lortu zuten.

2006an berriro eta gaur egun 0-3 urte arteko haurrak jasotzen ditu Txantrea auzoko heziketa zentroak. Metodolo- gia ugari erabiltzen dute, eta ideia bat dute oinarri: "Haurra gaitasunez beteri- ko pertsona da". Entzumen aktiboa lan- tzen dute hurrekin zein familiekin, be- ren beharretara egokitzen saiatzen dira. Emozio eta sentsazio ugari lortzeko es- pazioak eskaintzen dizkiete haurrei, eta haiek erabakitzen dute zer landu: "Espe- rimentatzeko askatasuna ematen diegu". Horretarako, "ondoan"izaten dute lagun- tzailea, ez aurretik, ez eta atzetik ere.

Familien parte-hartzea sustatzen da eta ikasturtean zehar egiten dituzten bileretan, eroso egoteko mekanismoak jartzen dituzte, "familiak zaindu egin behar direlako". Egunerokoan, gurasoak haurren bila barruraino sartzen dira, gardentasun eta konfiantzaren seinale. Senideentzako eremuak ere badituzte ikastetxean: "Gurasoek beren seme-a- labekin igaro ditzakete bi ordu arratsal- deren batean, eta hori baliatzen dugu egon daitezkeen dudak edo zalantzak argitzeko".

Auzoko hainbat elkarterekin ere ha- rremanak garatzen ari dira, tartean Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikas- tetxeekin. Praktika programa bat jarri dute martxan eta eskola horietako hain- bat ikaslek egin dituzte praktikak haur eskolan. Auzoko musika taldeen edota ipuin-kontalarien bisita ere izan dute, besteak beste.

Mahai-inguruaren amaieran, publi- koan dagoen irakasle batek hartu du hitza, eta ondo laburbildu du gogoeta orokorra: "Komunitateko kideek posi- ble dela sinetsi behar dugu: ideiak eta bideak arakatu, ahalegina egin, elkartu eta apustua egin, guztion artean". ■

JALGI
EUSKAL KULTURAREN PLAZA IBILTARIA
jalgika.eus

BATUKADA PORROTX BURUHANDIAK → ERRALDOIAK

YOLANDA ARRIETA
MAITE FRANKO
PATXI ZUBIZARRETA
MIKEL AYLLON
+ IGOR ARZUAGA
MARA FEAT MILAY
MATEO METEO

OIER ARAOLAZA
AIKO DANTZA PLAZA
PANTXIKA TELLERIA
ELIRALE

MIKEL URAKEN JOSEBA TAPIA
+ IÑAKI PLAZA
HIP HOPA
JUAN MARI BELTRAN
FITA FIK
HALA DZIPO
ERASO!
GALDER IZAGIRRE
XABI SOLANO
XILIPURDI HAUR BERBENA
RUPER ORDORIKA
+ IGOR ARZUAGA
HESIAN AKUSTIKOA
IGON OLAGUENAGA
ODEI BARROSO + IÑAKI VIÑASPRE
ULUKA
GORKA URBIZU
AGUXTIN ALKHAT
ANARI

HIKA TEATROA:
KOADERNO ZURIA
ANODINO TEATROA
ZERURA ERORIA
PABLO IBARLUZEA
ESPERIENTZIXAK
MEDIAZIOAK
INPROTXOW
BAPATEAN ZIRKO
KALE ORROKA
METROKOADROKA

PIKADERO
FILM LABURRAK
KATIXA AGIRRE
ESTI URRESOLA
IRATXE FRESNEDA:
NIRE 12 SEKUENTZIA KUTTUNAK
ASIER ALTUNA:
ATZERA BEGIRAKOA
LABURBIRA

MIREN AMURIZA
KAPULANA BAT ZINTZILIK

XALBADOR
"IZANA ETA IZENA"
ANDONI EGAÑA + ASIER RUBIO
BERTSOLARITZA IKASTETXEETAN
GARAI HURA GARA
(ANDONI EGAÑA ETA XABIER LIZASO)
IÑAKI VIÑASPRE, ODEI
BARROSO, SERAPIO LOPEZ,
IZAR MENDIGUREN, OHIANE
PEREA, JON MAIA
BERTSOLHARITZA
IBAI ESOAIN

EIDER EIBAR
IRANTZU LEKUE
CARLOS VARELA
IPAR HAIZEAREN ERROKAK
GORKA BELASCO

AIARALDEAN
MAIATZAK
23-29

EUSKAL KULTUR SORKUNTZAREN KOMUNIKAZIOARI ETA TRANSMISIOARI BURUZKO JARDUNALDIAK
AMURRIO MAIATZAK 26 ETA 27

LAGUNTZAILEA: ARGIA

Kulturadunak



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Kulturadunak lantzen du lurra. Lurra landu ez bagenu, ez genuke orain dugun kulturarik izango. Beste maila bateko hizkuntza izango genuke, eta idatzita-koaren arrastorik ere ez. Izan ere, kultura lurraren kultura da, latineko *cultūra*-tik omen dator. Horri tiraka *colere*-raino iritsi omen dira etimologiazaleak.

Kulturak, beraz, lurra lantzea, alor bat lantzea adierazten du. Hortik gero, hartuko duen esanahi mordoak: ikastea, zaintzea, garatzea, lantzea, aritzea, jar-dutea... Lurrekoak ere ez diren alor ugartan: zientzia, artea, hizkuntza, jakintzak, asmamena, adiskidetasuna...

Latineko *colere* hark, nonbait, "bizi" hitzaren adiera ere badu. Hortik omen dator koloniar edo kolono hitzaren esanahia: lur berri bat lantzen duena.

Geu ere gure lur honetan kokatu ziren lehen kolono haietatik gatoz. Aurrekoek naturak ematen zuena bildu eta baliatzen zuten. Pixkanaka lurra landu eta toki jakin bati lotuta bizitzera ohitu behar izan zuten. Eta lantzeko gero eta alor gehiagoren premia; berezko tokiko natura naturalari lurra kendu behar, irabazi egin behar... Duela milaka urteko lan haiek egiteko nola jokatzeko ote ziren? Pentsatzen da hasteko basoari su emango ziotela eta gero lurra lantzeari ekin. Euskal



Kanariar Uharteetako landaredia zeharo aldatu zen gizakiak bertara iritsitakoan.

SINC-CC BY

Herrian jardun haren arrastorik baden ez dakit. Kanarietan gertatua argitzen ari dira, eta hango berri badugu. Uharte haiek duela 2.300 urte inguru populatzen hasi zirela uste da, eta horrek arrastoen sailkapena eta ikerketa errazten du. Garaitsu hartan hasten da, agidanean, basoaren atzerakada eta nekazaritzaren hedapena. Arkeologoez topatzen dituzten arrastoez gero eta argiago adierazten omen dute.

Gero etorri zen, han bezala hemen, landare berriak sortzea. Naturalak diren aldaeretatik abiatuta zaintza tekniken bidezko sorkuntza. Landare berri horiek ez dira naturalak, ez daude naturan, geuk sortuak dira. Adibidez, Euskal Herrian ditugun ehunka eta ehunka sagarrak. Landutako horiei, nola ez, "kultibar" deitzen zaie, eta naturalei aldaera edo bariatate. Kulturaren, lantzearen kultibarrak. ■

Futbol 7

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIEN ALDE

MAIATZAK 28 / HENDAIA
XIII. EDIZIOA

futbol7.hendaia@gmail.com





LEITZAKO AMAZABAL INSTITUTUA

Elikadura burujabetza ikasgelan



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Baserritar, ekoizle eta kontsumo talde askoren lanari esker, duela gutxi arte bazterrean zeuden zenbait gai (kontsumoa, elikadura, nekazaritza...) ari dira pixkanaka jendartearen erdigunera mugitzen. Eta, kalean garrantzitsu den horri ez al litzaioke garrantzia eman behar eskoletan, heziguneetan? Bada, hari horri tiraka hasi ziren Leitzako (Nafarroa) Udaleko Berdintasun Saila eta kontsumo taldea. "Landa eremuan bizi gara, eta badago kontzientzia bat, familia askok baitute baserria edo baratzea. Institutuan lantzeko gai interesgarria zela pentsatu genuen", kontatu digu Josune Antxo berdintasun teknikariak.

Iraganera begiratu, etorkizuna josi

Leitzako Amazabal institutuko DBHko maila guztietan landu dute gaia, hiru saiotan. Lehenengoan, elikadura burujabetzaren inguruko *Amalurraren ahotsak* dokumentala ikusi zuten. Ondoren, ikasleei galdetegi bat banatu zieten aitona-amonekin betetzeko: Zein elikadura ohitura zituzten gazteak zirenean? Zer jaten zuten eta zein garaitan? Nolako zen nekazaritza eta zein paper zuten emakumeek? Galdetegia bete eta gero, bigarren saioan bateratu zituzten ikasleek ateratako ondorioak, hausnarketak

eta ideiak. Azkenik, Leitzeko Kontsumo Taldeko kide eta baserritarra den Gozone Sestorainen hitzaldia izan zuten ikasleek. Nekazaritza ereduak azken hamarkadetan jasandako aldaketa bortitza eta horrek dakartzan kalteez aritu zen. "Nekazaritza industrial duela gutxi hartutako bidea izan da, oso berria, eta aldiz, nekazaritza iraunkorra betidanik, duela gutxi arte gure herrietan aitona-amonek praktikatzuten zutena da".

Gaia ikuspegi feministatik

Nekazaritzan emakumeak izan duen garrantzia nabarmentzea eta bere lanari balioa ematea izan da dinamikaren helburuetako bat. "Nekazaritza iraunkorra emakumeari oso lotuta egon da beti: baserrian paper garrantzitsua izan du hazien zaintzan, baratzean... Nekazaritza industrialak, aldiz, balore oso maskulinoak ekarri ditu", dio Sestorainek. Ustiapen handiak, monolaborantza, sekulako inbertsioak, teknologia berri-tuena... Horiek dira nekazaritza eredu horren ezaugarrietako batzuk.

Ikasleek orokorrean oso erantzun ona eman dutela eta hurrengo ikasturtean lantzen jarraitzeko asmoa dutela aurrreratu du Antxok: "Sakonean lantzeko jarraitasuna behar du". ■

BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea
@bizibaratzea



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €
Harpidetzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Maiatzak 19: Alta

Tomasene Kultur Etxean, 19:00etan.
Bizarrain Euskara Elkarteak antolatuta.

Ekainak 1: Otsagabia

Eskolan, ordua zehazteke.

Ekainak 10: Mutriku

Galdona auzoko kanpinean, 20:00etan.
Mutrikuko Baserri Elkarteak antolatuta.

Ekainak 11: Gellao (Eskoriatza)

Auzoko elkarteetan, 11:30ean. Muruondo
elkarteak antolatuta.

Ekainak 14: Barañain

Sahats euskaltegian, 19:00etan. Kultur
Astearren barruan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus
943 371 545

SUBH, KALIFAREN KUTUN BASKOIA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Kordoba, 996. Subh eta Almanzorren arteko aliantza politikoa hautsi zen, hogeitaz kaliferriko boterea *de facto* bien eskuetan egon ondoren. Bigarrena, buruzagi militar eta politikoa ezaguna, *sayyid* (jaun) eta *malik karim* (errege noble) izendatu zuten 998an eta Al-Andaluseko agintari gorena izango zen kalifa izan gabe ere. Lehena, Subh umm Walad, Alhaken II.a kalifa ohiaren kutunena eta Hisham kalifaren ama, gortetik egotzi zuten eta 999ko abenduaren 11n hil zen.

Subhi *al-Basunsiyya* ere esaten zioten, baskoia alegia, euskal jatorrikoa zelako. Ez dakigu zehatz-mehatz non eta noiz jaio zen, baina bai haurra zela gatibu eraman zutela Kordobara eta han gawari edo esklabo kantari izateko hezi zutela. Ilehoria eta ederra omen zen, eta jakin-min asezinari esker hainbat arte eta ezagutza menderatu zituen. Alhaken II.aren haremean toki nabarmena eman zioten ezaugarri horiek, eta 962an kalifaren lehen semeaz erditu zenean, haren kutunena bihurtu zen.

Kaliferriko haremetan ohikoa zenez, Subhen bizimodua oso mugatuta zegoen. Baina kalifari seme bat –eta georago beste bat– emanda, agintariak ez zuten hain estu hartu; opariz eta adeita-

sunez betetzen zuten, eta tarteka, Medina Azaharatik kanpo ibiltzen uzten zion, gizonezkoz jantzita, Bagdadeko mutil gazteen modari jarraituz eta Djafar izena erabiliz.

Hala ere, erosi eta Alhakenekin ezkonduarazi zuten esklaboa baino ez zen. Beraz, ez zeukan ez ondasunik ez eskubiderik. Eta semeak egoera berean egongo ziren adin txikikoak izan bitartean. Bere egoera pribilegiatua eta semeentzat tronua ziurtatzeko bere alde egingo zuten funtzionario efizienteak eta baliabideak bildu behar zituela bazekien. Lan horretan, 967an, Almanzor gaztearekin egin zuen topo, eta bere babesean hartu zuen. 972an lehen kargu militarra lortu zuen Almanzorrek eta, 976an, Alhaken II.a hil eta Hisham seme gazteena kalifa izendatu zutenean –zaharrena, Abderraman, 9 urte zituela hil zen–, kaliferriaren kontrola eskuratu zuen, kalifa berriaren amarekin batera. Zurrumurruek zioten maitaleak zirela; ez dakigu etekin sexualik ateratzen zioten harremanari, baina politikoa behintzat bai.

Hala, Iruñeko Erresumatik esklabo eramandako neskato hura Al-Andaluseko pertsonarik boteretsuenetakoa izan zen. ■

'Zamorako potoa' izeneko pieza, Subh-i oparitu ziotena Alhaken kalifaren seme zaharrenaz erditu zenean.



Hanibalek Alpeak zeharkatzeko egin zuen ibilbidea argitu du mikrobiologiak

K.a. 218. urtean Hanibalen gudarosteak balentria handia –eta estrategikoki oso eraginkorra– egin zuen Alpeak zeharkatu. Baina zer ibilbide egin zuten mendilerroa gainditzeko? Gavin de Beer (1899-1972) enbriologoa izan zen kartagoarraren soldadu, zaldi eta elefanteek Traversette pasabidea (3.000 m inguru) erabili zutela proposatzen lehena.

Torontoko York Unibertsitateko Bill Mahaney buru duen ikerlari taldeak tesi

hori egiaztatu du orain. Garai horretan Traversettetik gertu animalia gorozki pilaketa masiboa izan zela ikusi dute, kartagoar zalditeriak eragindakoa. Gorozkiak, jakina, berehala desagertu ziren, baina mikrobiologoek aztertu ahal izan duten aztarna utzi zuten: milaka urtez bizi ohi diren klostridia bakterioak. “Zomorro horietan, zehazki, inbasio punikoen garaiko marka genetikoa topatu dugu”, *Archaeometry* aldizkarian adierazi dutenez. ■



BSK



Web-telesaila egin duen lantaldea jo eta su ekinean.

TXOMINISTAK

Errioxa euskaldunduko duen web-telesaila



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Ikusi dut orain hamar bat egun estreinatu dela *Txoministak* web-telesail berria, Hiru Damatxo ideia faktoriak bideratu eta ARGIAk zabaldua. Eta otu zait nondik nora iritsiko zen lehen saio hori ARGIAren eskuetaraino, aktore, grabazio edo produkzio lanetan izerdi tantarik bota ez badute. Hor nire zalantza: nola engainatu ote dituzte damak seriearen aurkezpen saioarena bezala ondorengo kapituluaren estreinaldiak ARGIAren kontrolpean uzteko? Egileei galdetzea izango dut onena.

Engainu hitza esan bezain pronto hasi zaizkit barrez, ezetz, lasai egoteko, ez dituela inork engainatu; tratu batera heldu direla. Baina ni oraindik mesfidati. "Ziur zaudete zuentzat ere tratu txukuna izan dela?". Baietz. Eta berriz algarak. Hitzarrena itxura batean sinplea da: ARGIAk du web-telesailaren hedapenaren eskusiba. Asteazkenetan zabaltzen da eta ostiralera arte ARGIAren bidez bakarrik ikus daiteke. Ostiraletik aurrera zintzilikatzen da Youtuben. Eta trukean egileek material gastuei aurre egiteko moduko kantitate ekonomikoa jasoko dute.

Azalpenik ez dut eman oraindik, ordea, *Txoministaken* nondik norakoan inguruan, eta inor zer den oso ondo harrapatu gabe gera ez dadin aipatuko ditut pare bat datu. Euskal Herrian gironutako telesail politikoa da. Errioxa geureganatuz zortziak bat aldarrikatzen duen alderdiaren sorrera du oinarri, eta egileen hitzetan "Euskal Herria definitiboki askatzerako doa". Pentsatuko duzun bezala umoretik landua hasiera-hasieratik, *Txoministaken* ideia bera sei-zazpi bat lagunen arteko afari giroan sortua baita. Web-telesaila forma hartzen joan den neurrian handitu da lantaldea, Hiru Damatxo-k bideratzen badu ere ondoan baitauzkate beste hamar lagun. Hasiera batean behintzat zortzi atalez osatuko da, eta alderdiaren barrenak ezagutzeko aukera emango digu.

Ilusioz heldutako proiektua da eta asteburuetako parranda orduak murriztuz atera dute aurrera. Baldintzak ezagututa eta haizea kontra izanda, emaitza oso duina da. Gure bozka zalantzan jar ztera iritsiko al gara? ■

"Zorionak egiten duzuen lan bikain horrengatik; kalitate handiko astekari bat sortzearen!"

Julio Soto,
ARGIAkoa



Lasarte ikusteko beste betaurrekoak euskarari enfokatuta

Ttakan kultur elkartearekin elkarlanean mahai-ingurua antolatu genuen maiatzaren 12an. *Lasarte-Orian euskararen bilakaera: atzera begira aurrera egiteko* izenburupean aritu ziren Mailu Arruti, Pello Sasai eta Marga Iturri. Moderatzaile aritu zen Onintza Iruretak bertako edukiak ekarriko dizkigu hurrengo aste-ko astekarian.

AGENDA

Komunikatuz eraldatu-herriak euren komunikazioaren jabe jardunaldiak

Mugarik Gabe GKEak eta Aiaraldea komunikabideak elkarlanean antolatuta, hainbat ekintza egingo dira Orduñan, herri indigenek hedabide handiei eta pentsamendu bakarrari aurre egiteko landu dituzten komunikazio ereduak ezagutu eta esperientziak partekatze-ko. Ekintza guztiak Alhondegian izango dira, 19:00etan hasita.

- Maiatzaren 18an eta 23an bideo emandak.
- Maiatzaren 20an mahai-ingurua: *Komunikazio alternatiboa eta herri komunikabideak eraldaketa sozialerako*. Bolivia (CEFREC), Argentina (CLACPI) eta Euskal Herriko (ARGIA) esperientziak kontagai.

MEFSST jaialdia

PUNKA EZ HILTZEKO, FEMINISMOA TXERTO

Maiatzaren 7an egin zuten MEFSSST (Musika Errebolta Feminista) jaialdia Zarauzko Putzuzulo gaztetxean, laugarren aldiz. Antolatzaile-taldeko Miren Aranguren eta Gurutze Ostolazarekin bildu ginen jaialdiaren ataritan, eta ondorio argi bat atera: XXI. mendean, punkak feminista behar du izan, punka izango bada.



Danele Sarriugarte Mochales
@daneleSM

Aurrez ere aipatzen omen zuten, tartean-tartean, kontzerturen batean edo bestean topo egiten zutenean, baina hiru sugarrek piztu zuten zerbait egiteko ahalegin espontaneo, Miren Aranguren arabera: lehenik, garaitsuan estreinatu zela *Zuloak* dokumentala, emakumez eta musikaz ari, eta ez zirela lan horretan islatzen zenarekin identifikatu; bigarren, Putzuzulo gaztetxean bertan, bertsio-gau batean, emakume pila batek parte hartu zuela; hirugarren, Pottors ta Klito sortu zela -musika-talde horretako gitarra-jolea da Gurutze Ostolaza-, ingurukoak ere ahaldunduz.

Borroka eta gozamina, tokian toki

Besteak beste, plazer hutsa delako ere antolatzen dute MEFSSST. Arangurenen hitzetan, lehenengo jaialdian, gustuko zerbait egitea zuten helburu. Ostolaza: "Klabea da hori. MEFSSTek lana dakar, baina sekulako plazera ere bai. Kontzertuak antolatu izan ditugunean ere, garrantzia eman diegu gure nahiei. Askotan, antolatzen zabiltzanean, ez duzu kontzertua ikusten, eta igual izugarri gustatzen zaizu talde hori. Sekulako lana egin, eta gozamenik ez. Gure kasuan, adibidez, norbaitek talde bat ikusi nahi badu, bada, besteok egiten ditugu txandak, edo behar den moduan moldatzen gara".

Lehenengo MEFSSST jaialdiak izugarriko arrakasta izan zuen. Ia 100 lagun bildu ziren mahai-ingurua aditzera. Ostolaza: "Putzuzuloko aulki guztiak erabili genituen, eta ez dira gutxi!". Horren ondoren, gauza asko ekarri zituzten argitara. Arangurenen esanetan: "Taularatzaz hasi ginen hizketan, oholtza gainekoaz, baina gero konturatu ginen horren bueltan gauza pila bat zeudela landu beharrekoak. Hori dela eta hurrengo edizioetan, adibidez, soinu-teknikari ikastaroak antolatu genituen, eta aurten DJ tailerra. Horrez gainera, konturatu ginen ezin genuela emakumez baka-rik hitz egin, beste gorputz eta ahots batzuei buruz baizik".

Tokian aritzea izan dute beti jomuga. Ostolaza: "Gure eskura eta gure ezagutzara iristen diren lekuetan eragin nahi izan dugu, eta beste norbait animatzen bada gu prest gaude, jendeak nahi izatera, laguntza eskaintzeko, baina ez daukagu inongo asmorik ez predikukatu ibiltzeko, ezta nekatzeko ere".

Gainera, Bilgune Feministako kideak ziren antolatzaileetako asko, eta ez zuten, antolakunde horretan bezala, ikuspegi nazionaletik aritu nahi. Aranguren: "Punk-hardcorea da guk Putzuzulon gertuen bizi dugun musika-eremua, eta eremu hori oso politizatuta dago, baina juxtu feminismoa ez da oso modu

kontzientean hartu, anti-espezismoa eta autogestioa hartu diren bezala. Erronka da, rockean ere, orokorrean. Euskal Herrian rockak sekulako eragina dauka eta, zentzu horretan, iruditzen zait gogoeta zabaldu beharko litzatekeela, baina ez dut uste soluzioa denik zerbait nazionala sortzea, baizik eta hausnarke- ta hauek zabaltzen joatea, tokian toki".

Norberak nahi duena, norberak borrokatu behar

Afizio-mailako musika taldeez ari gara- la eta, argi dio Ostolazak: "Emakumeoi ziria sartu digute, eta utzi egin diegu ziria sartzan, gainera. Etxean geunden, etxetik atera egin behar zen, garaipen bat izan zen, eta emakumeek beren dirua edukitzea sekulako pausoa izan da, baina etxeok egiten jarraitu dugu, kalekoak egiten jarraitu dugu... Ez dauka- gu aisialdirik". Eta lehenastunetik ere ez diogu ematen. Aranguren: "Onena izan behar duzu, gainera. Ez dugu espero gizon batek izugarri berezi kantatu behar duenik, hura entzun eta disfrutatze- ko. Emakumeon kasuan, aldiz, kantatzen duzu Aiora Renteriak bezala, edo...".

Biek ala biek uste dute ukabil-kolpea eman behar dugula mahai gainean. Aranguren: "Pribilegioen inguruan beti esaten dugun moduan: ez dizute ezer emango, zuk zeuk hartu behar duzu".



Arrasateko Perlata taldea izan da aurtengo MEFSSST jaialdiaren sorpresa atseginenetako bat.

Espazio erosoetan aiseago arnasten da

Eta MEFSSTeko kideek hartu dute zer-bait, ezin uka. Jaialdiaz hitz egiten hasita, ilusioa, poza eta maitasuna dira nagusi. Zergatik ote den hain berezia, horra galdera. Aranguren: "Zaintzari sekulako garrantzia ematen zaio. Iaz, adibidez, talde bat etorri zen eta neska bati paniko eszenikoa sartu zitzaion. Oso gaizki pasatu zuen eta igual beste leku batean sekulako presioa igarriko zuen; guk, ordea, esan genion lasai asko ez jotzeko, ez zela ezer gertatzen. Segurtasun-espazio izugarri bat da, badakizu egun horretan ez zaizula ezer txarrik gertatuko, eta hori asko da".

Askoda, bai. Ostolaza: "Iaz, Resurrection Fest-en, dantzan ari nintzela, ikaragarri ondo pasatzen, eraso egin zidaten. Erantzun egin nion tipoari, eta denek ikusi zuten gertatutakoa, baina zuk uste duzu norbaitek zerbaite esan zuela? Jakina, Resurrection Fest, gero, sekulakoa da: umeentzako eta familientzako txokoa dauka... Baina hori gertatu zen, egunez, eta denak isilik".

Beste eremu batzuetan sor ote daitekeen MEFSSTeko segurtasun bera, horra zalantza. Aranguren: "Zein dagoen antolatzen, zein dagoen soinu jartzen... Emakumeak baldin badaude eremu horietan guztietan, berme handiagoak daude. Eta, oholtza gainean, gizon-eredu oso zehatz bat bakarrik ikusi ordez, bestelako gorputzak ikusten badira, horrek nahitaez eragiten du giroan".

Bakarrik gai, lagunekin ere bai

Taldean ahalduntzearen indarra, horixe ekarri die, besteak beste, MEFSSTek Arangureni eta Ostolazari. Eta baita beren buruak berrasmatzeko aukera ere.

Aranguren: "Hemezortzi urterekin ez nintzen animatu, baina hogeita hamar urterekin sor dezaket talde bat". Ostolaza: "Horri tiraka, gurasotasuna eta musika uztartu ahal izatea, adibidez, garrantzitsua izan da niretzat. Ume bat ekarri arren, joango naiz biran Pottors ta Klitorekin. Beste erritmo batekin egin beharko ditugu gauzak... eta zer? Ez da ezer gertatzen! Uste dut hori dela, benetan, punk jarrera. Dena planifikatu behar al dut? Etorriko dena etorriko da".

Taldearen babesari eskerrak, aiseago eusten zaio. Ostolaza: "Aurreneko kontzertuetan, ez zaio mundu guztia-ri gertatuko, baina, oro har, ez da ondo pasatzen: lotsak, segurtasun falta... Ez da zaila amore ematea, baina inguruak xaxatzen eta animatzen bazaitu...". Besteak beste, horregatik antolatu zituzten iaz rock-udalekuak. Aurten ez dituzte egingo, baina bide emankortzat dute: "Txikitatik aritzeak sekulako eragina du. Musika-eskolak neskez leporaino beteta daude, eta etxean entseatu daiteke, baina oholtzarako pausoa eman egin behar da. Apustu ona da umetatik estimulu positiboak eta erreferentziak edukitzea".

Punka XXI. mendean

Ostolaza eta Arangurenen iritziz, punka ez da hil, baina testuingurua aldatu egin da, musika-generoak berak arau berriak

sortu ditu, eta, hala, transgresioa ere ezinbestean aldatu behar da. Ostolaza: "Niretzat punkaren oinarrietako batzuk inoiz bezain baliagarriak dira: zuk zeuk egitearen filosofia, gauzak di-da egitea, konplexurik gabe... gauza magikoak dira, eta esentzia hori bizirik dago". Aranguren: "Punkak oinarrian dauzkan gauza pila bat mantendu daitezke, baina gaur egun punkak esan nahi duen hori ez da lehengo gauza bera. Xabier Montoiak bere garaian esan zuen Euskal Herriko punkak euskarazkoa izan behar zuela, benetan punka izateko; bada niretzat, gaur egun, punkak, punka izateko, feminismoa hartu behar du bidelagun, interseksionala, jakina, eta arraza eta beste hainbat ardatz kontuan hartu".

Aurrera eta musika-panoramari oro har begirata, baldintza berriak sortzeko beharra azpimarratu du Aranguren: "Biran ezin da edozein joan: talde batean aritzeko diru pixka bat eduki behar duzu, bestela, ezin badituzu sokak erosi, zail samar. Hego Euskal Herriari oso baldintza eskasak dauzkagu eta talde batean egotea dirua galtzea da". Taldeen artean sekulako aldea dago, gainera: ordaintzen zaienei 25.000 euro ordaintzen zaizkie, eta besteei ez zaizkie 50 euro ere bermatzen. "Lan-egun egin behar dugu hori. Beti edukiko duzu aukera dirua gastatu eta jotzeko, baina beste gorputz eta ahots batzuek hitz egiten ari bagara, baldintzak ere hobetu behar ditugu, eremuak uztartu, bai azpiegituren aldetik, baita baldintza ekonomikoen aldetik ere". ■

ZER DEMONTRE EGITEN DU ARGAZKI ZUZENDARI BATEK?

“Film horren argazkia bikaina da”. “Argazki zuzendaritzaren arloa ikaragarria iruditu zait”. Pastazko betaurrekoak jantzita ditugula, askotan esan edo entzun ditugu esaldi horiek, ezta? Baina, esaten ari zareten une berean, zenbatetan pentsatu duzue “ez dakit zer arraio den film batek argazki on bat izatea, baina tira...”. Jakin, argazki zuzendari baten lana ezinbestekoa dela film bat aurrera eramateko. Eta ez, bere lana ez da film konkretu horri buruzko promozio argazki tipiko horiek egitea.




Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

Nestor Almendros, Vittorio Storaro, Christopher Doyle, Roger Deakings, Gordon Willis, Gregg Doland... Zazpigarren arteak eman dituen argazki zuzendari onenatarikoak izan arren, ziur oso gutxitan (agian inoiz ez) entzun dituzuen izenak direla. Baina, zer izango lirateke adibidez Terrence Malick eta Alejandro González Iñárritu, Emmanuel Lubezki gabe? Zer Steven Spielberg, Janusz Kaminski gabe? Bai, zuzendari askoren eskutik, gehienetan argazki zuzendari berdinak joaten baitira: Sven Nykvist-Ingmar Bergman, John Alcott-Stanley Kubrick, Robert Richardson-Quentin Tarantino, Robert Yeoman-Wes Anderson... Pentsaezina zuzendari erraldoi hauen filmak ulertzea, argazkiari esker lorturiko estetika eta berezko atmosfera hori gabe. Dena den, ez dago hain urrutira joan beharrik, argazki zuzendari bikainei buruz aritzeko. Euskal Herrian bertan, Javier Agirre (*Amama, Loreak, Urte berri on amona, 80 egunean, Lucio, Aupa Etxebeste...*), Gaizka Bourgeaud


(*Un otoño sin Berlin, Bertsolari, Kutsidazu bidea Ixabel...*), Juantxo Sardon (*Gazta zati bat, Barrura begiratzeko leihoak...*) eta jakina, nazioartean ezagunak diren Flavio Martínez Labiano, Javier Agirresarobe, Juan Ruiz Anchía eta Kiko de la Rica bezalako izenak topa ditzakegu.

Hitz poetiko samarrak erabiliz, beraien eginkizun orokorra argiaren bitartez zuzendariaren ametsak marraztea dela esango genuke. Obra osoaren estetika konkretua lortu eta irudi kalitate mantentzea. Baina baita beraien lan-talde osoa koordinatzea ere, kamera, fokua arduraduna, laguntzaileak eta elektrikoak esterako, bakoitzak bere eginkizun zorrotza izaten duela kontuan izanda. Aurre-ekoizpen prozesuan egindako lan guztiari esker, argazki zuzendariak alde aurretik lortu nahi den estetika zehatz-mehatz ezagutzen duenez, grabaketa hasten den unean lente eta objektiboak, formatua, euskarria, kameraren altura, mugimenduak,



posizio konkretuak eta beste hainbat gauza bateratzen ditu, taldeko kide bakoitzari funtzio zehatza emanez. Azken urteetan, dena den, kamera digitalen etorrerarekin, lehen zituzten beste hainbat eginkizun ordezkatzeko joan dira. Grabatzerako orduan, adibidez, zeluloidearen tratamenduaz eta errebelatuaz kezkatu beharrean, zuzenean disko gogor batean grabatzen da. Tira, mundu perfektu batean hala gertatuko litzateke, baina askotan errealtatea oso desberdina da. Diru faltak edo baliabide eskasek “gerrilla errodaje” deiturikoak bultzatzen du askotan. Kamera esku artean duen berberak egiten eta zuzentzen ditu edizio lanak, “arazorik gabe” gainera.

Horrez gain, filma zein prozesutan dagoen, argazki-zuzendariaren eginkizuna aldatzen joaten da. Aurre-ekoizpenean sartzeko, errodaje jarraitu eta post-produkzio fasean amaitu. Lokalizazio teknikoetan egoten da, gidoiaren analisi eta egituraketa bisualean, aipaturiko



grabaketa prozesuan hartu beharreko erabaki guztietan, baita filma muntaketa prozesuan dagoenean, argi/koloreari azken ukituak emanaz, itxura "biribila" emateko. "Timing" prozesuan, erro-dajejan gerta daitezkeen akats txikiak zuzentzen ditu, ahalik eta jarraitasun fotografiko handiena lortzeko helburuarekin. Baina garrantzitsuena, helburu

nagusia, irudi horiek guztiak ikuslearengan emozio eta sentsazioak piztea da. Filtro, objektibo eta iluminazio desberdinak erabiliaz efektu emozional eta dramatikoak bilatzea, alegia. Eta batez ere, gidoiak eta istorioak eskatzen duen horrekin eskutik joatea.

Batzuek esango dute, ekoizpen baten lan-taldearen barruan tekniko soil

batzuk direla. Besteek ordea, artistak, irudiaren magoak. Nik uste dut bietatik dutela apur bat. Argi dago zazpigarren artearen makineriaren barruan ezinbesteko engranajea direla. Ezin ahaztu, bide desberdinak jarraitu dituzten arren, argazkigintza eta zinema ama beraren anaia-arrebak direla, sustrai berberetik jaiotakoak. ■

tradEBI
EB Traducciones Itzulpenak, S. L.
www.tradEBI.com

BIZENTAREN LUMAK
elhuyar da

Zelai Haundi, 3
Osinalde Industrialdea
Usurbil (Gipuzkoa)
☎ 943 363 040
www.elhuyar.eus

Zure jendea, zure hedabidea, zure iragarkia:
JARRI PUBLIZITATEA HEMEN

ARGIA

943 371545 | publiz@argia.eus | www.argia.eus/tarifak

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gonak gorroto zituen neska



Xabier Etxaniz Erle



Marimutilla naiz

ANA JAKA

Ilustratzailea: Patxi Gallego.
Haurrentzat. 32 orrialde.
Elkar, 2016

“Eta zer?” bildumako lan guztiak egoera baten inguruko liburuak dira; eta, normalean, izenburuan bertan argi geratzen da zeri buruzko lana izango den. Oraingo honetan ere, irakurleak berehala ikus dezake mutilen jokabidea edo gustuak dituen neska baten istorioa dela. Edo zuzenago esateko jokabide femeninoa, gizarteak emakumeei egokitu ohi zaizkien jokabideak, gustuko ez dituen neska baten istorioa.

Beno, kontua da Ioneri mutilen gauzak gustatzen zaizkiola, mutil itxura duela eta mutila ematen duela.

Ipuinaren hasierak, ordea, *bullying*aren inguruko kontakizuna ematen du: “Gaur marimutilla deitu didate jolas-orduan. Beno, Aitor izan da horrela deitu didana. Besteek ez, besteek entzun egin dute, eta batzuek barre egin dute eta beste batzuk isilik geratu dira, nik zer erantzungo”. Eta abiapuntu horretatik, mari-mutil esate horren ondorioz sorturiko haserretik datorkigu kontakizun hau.

Ionek aitonarekin hitz egingo du, bera-rekin duen konplizitatea funtsezkoa da istorioaren nondik norakoa ulertzeko, are gehiago izaba Naiararen ezkontza dela eta, etxekoekin dituen eztabaidak bideratzeko.

“Aitonarekin hitz egitea gustatzen zait, horrelako galderak egiten dituelako. Nik pentsatzea nahi duela esaten du, nik neuk nire pentsamenduak sortu eta erabakiak hartzea, pertsona helduek bezala. Eta erantzuten saiatu naiz”. Horra hor Ione eta aitonaaren arteko harremanaren oinarria; aitona gauzen zergatia bilatzen du, eta hori ulertuta beti izango da errazago arazoaren irtenbidea aurkitzea. Gainera, Ioneri mari-mutilla deitu diotela jakitean aitona amonaren hainbat kontu

azalduko dizkio, nola aritzen zen bertsotan, emakumea izanda nola zen hori bitxia eta arraroa gizonezkoen mundu batean eta hari ere mari-mutilla deitzen ziotela horregatik: “Harro egon behar duzu zuk ere, nahi duzuna egiten duzulako, neska ala mutila zaren axolarik izan gabe.”

Ioneren inguruko ipuin honek bi espazio ditu, lehena, ikusi dugun bezala, eskola; bertan azaltzen da arazoa eta horren ondorioz planteatzen zaigu Ioneri ez zaizkiola gonak gustatzen, mutilen moduan janzten dela, mutila ematen duela... eta bigarren espazioa etxea dugu. Istorioa modu naturalean, ia kontura gabe, batetik bestera igarotzen da. Eta hasiera batean *bullying* edo eskola kontua ematen duena, azkenean familia barrukoa bilakatzen da. Izan ere, aurreiritziak eta inertziak sendoak dira eta gogorra da haiekin amaitzea, haiei aurre egitea.

Ana Jakaren ipuin hau “Eta zer?” bildumako estilokoa dugu; Patxi Gallegoren irudi osagarri eta aberasgarriak, komikien estiloak eta istorioaren ildo jarraitzeko egokiak dira. Kontakizun landuak gogoeta bultzatzen du baina panfleto izatera iritsi gabe. Amaieran hasierara itzultzen gaitu kontakizunak; baina amaierako egoera eta hasierakoa guztiz ezberdinak dira. ■



Ana Jaka andoaindar idazlea.

» TELEGRAMA

Mikel Uraken bakarlariak Berrizko kultur etxean kontzertua eskainiko du maiatzaren 20an 22:00etatik aurrera. Iazko *Neguaeren ostein* diskoko kantak entzuteko aukera paregabea **STOP Cesar Rendueles** soziologo eta idazleak bere azken liburua, **Capitalismo canalla** izango du hizpide Donostian: Garoa Kultur Lab, maiatzak 19, 19:00etatik aurrera **STOP Elepika festibala** ospatzen ari dira maiatzaren 13tik Errobiko mediateketan. **Asisko Urmenetak** hitzaldia emango du jaialdiaren barruan komikiaren hizkeraz maiatzaren 21ean Kanbon. 11:00etan da hitzordua **STOP**

» DISKOA

Rock and rollaren sua



Joxi Ubeda



Ezkurrik onenak

ESKEAN KRISTÖ

Baga Biga, 2016

Rock and rolla, rock gogorra eta bluesa kemen eta grina handiz jorratzen ditu Arratia bailarako Eskean Kristö taldeak. Kantuak gitarra riffen bidez hasten dituzte, eta gitarren punteoak eta marrazkiak, leloak eta koruak arretaz lantzen dituzte; baita moldaketak ere, oro har, nahiz eta gitarretan oinarritutako doinu gordinak jo.

Pello Artabe (ahotsa), Alex Harillo (gitarra), Aritz Ontalvilla (gitarra), Peio Artetxe (baxua) eta Imanol Arrese (bateria) musikari trebeak dira, eta ekoizpen lan ona egin dute Igor Delgadoren gidaritzapean. Hitzak idazteko eta diseinua egiteko zereginak ere ganoraz burutu dituzte.

Indar handia transmititzen duten kantuak grabatu dituzte, ozen entzuteko modukoak. Grabazio saioetan parte hartu duten gainerako musikariak ere ederki aritu dira: Zalao Urain (ahotsa), Bart Farrell (ahotsa), Arra-

tiako Luis Iruarizaga abesbatza, Jorge Trueba (pianoa), Vicent Zaragoza (perkusioak) eta Mayor Asier Garcia (perkusioak).

Taldearen aurreko bi lanen segida da disko berria –2013an beren kabuz kaleratu zuten sei kantuz osaturiko disko bat eta 2015ean *Azote kaldüz* diskoa Baga Biga zigiluarekin–, baina kantuetan ukitu eta xehetasun berriak edo desberdinak entzun daitezke, bai doinuetan bai hitzetan.

Taldeakideek 70eko eta 80ko hamarkadetako rock-and-rolla eta hard rocka eta 90eko hamarkadako eskandinaviar rocka atsegin dituztela suma daiteke kantuak entzunez gero. AC/DC, The Cult, Guns'n'Roses, Black Crowes, The Rolling Stones, Lynyrd Skynyrd, Jimi Hendrix, Santana, Niko Etxart...

Mikel Laboari eta Benito Lertxundiri egindako erreferentziak aurki daitezke kantuetan, Ramones taldearekin gogoratu dira *Ardigaldua* kantuan ("Gabak Gabak Hey zoratu gaitu, Gabba Gabba Hey animalia bihurtu") eta George Orwellen *Animal Farm* nobelaren zati bat aipatzen dute *Ezkurrik onenak* kantuan. Ahoan bilorik gabe mintzo dira kantuen bidez: "Txarririk txarrenak ezkurrik onenak jaten jozak" (*Ezkurrik onenak*), "Usteldu gaitu ustelkeriak" (*Radiobenta*), "Zu ez, nahi dut beste bat, otso basati lumatuago bat" (*Otso basati*), "Ez naiz beldur baino ez naiz fio, gezur usaia daukazulako" (*Gure bazterrak blues*). ■

Bizkaiko Arratia eskualdeko Eskean Kristö taldeko partaideak.



Gertaeren arrantzan

EUSKAL BALEZALEEN TRISKANTZA

GOGOAN ekoiztetxeak eta SUHAR arkeologiak elkarlanean aurkezten duten proiektua. Duela 400 urte Islandian erail zituzten 32 euskal bale arrantzaleen historiaren oroitzapena eta zabalkundearen jorrazten ditu.

Dokumentala ikusgai:

Maiatzak 23: Deba. 19:00etan, Kultur Etxean.

Maiatzak 25: Mutriku. 19:00etan, Kultur Etxean.

Maiatzak 26: Zumaia. 19:00etan, Kultur Etxean.

Maiatzak 27: Beasain. 19:00etan, Usurbe Antzokian.

Ekainak 7: Donostia. 19:00etan, San Telmo Museoa.



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

1615eko udan, Agirreko Pedro, Telleriko Esteban eta Villafrancako Martinen agindupean, hiru euskal baleontzi Islandiako kostan lehorreratu ziren. Martin zen, 27 urterekin, kapitain gazteena eta ahoberoena. Ezagunak ziren bere ausardia eta ehizarako trebezia ere. Buelako bidaiari ekitera zihoazela, itsaso zakarrak euskal baleontziak hondoratu zituen. Uda bitartean ehiza oparoak bertako nekazari eta abeltzainekin hartueman ona ahalbidetu zuen arren, udazkenak hotza ekarri zuen. Hotzak gosea eta goseak bertakoekin liskarrak: elkartruketa egitetik elkarri lapurtzera pasa ziren marinel eta artzainak, eta negua iritsi baino lehen abentura tragedia bihurtu zen.

Euskal balezaleen triskantza duela ia laurehun urte jazo zen hilketa ikertzea helburu duen dokumentala da. Txuri eta beltzik gabeko istorio bat, zuria esateko hamaika hitz dituen herrian. Nortzuk ziren baleazale haiek? Non daude hondoraturik haien ontziak? Nola bizi izan zituzten azken egunak erasotzaileen-gandik ihesi? Euren azken ibilbidea bereziki, datu historikoak aztertuz eta

ontzien bilaketarako urpeko miaketan bidez, galdera horiei erantzuna ematen saiatuko dira.

Dokumentalak elkarrekin korapilatu-ko diren bi hari jarraituko ditu: batetik, historian murgilduko diren ikertzaileen bilaketaren historia. Ander Arrese eta Beñat Iturrioz arkeologoak, eta Eñaut Tolosa dokumentalgilea, Islandiara abiatuko dira euskal balezaleen aztarnen bila. Bertan, bale arrantzaleek hil aurreko azken egunetan egin zuten bidea jarraitu, urperatutako ontziak bilatu, balezaleen aztarna arkeologikoak topatzen saiatu, dokumentuak miatu eta bertako adituekin elkarriketak izango dituzte: arrantzaleak, arkeologoak, hizkuntzalariak, etnografoak, urpekariak.

Bestetik, gertaera historikoaren narrazioa marrazki bizidun-animazio bidez irudikatu dute.

Pertsonaia historikoak

Villafancako Martin, kapitaina. Donostiarra zen. Beste kapitain bat ordezkatzeko izendatu zuten eta horregatik ez zuen eskifaiaren onespenez. Ausarta eta ar-

poiarekin oso trebea omen zen. Zorigaitoko udazken horren atarian, 1615eko irailaren 19an, Jon Grimsson Árneseko apaizarekin tratu baten bueltan eztabaida izan zuen eta lepotik zintzilikatuko zuela mehatxu egin zion Martinek. Zentzuzko diote gertaera horrek piztu zuela euskaldunen kontrako ehiza.

Ari Magnusson, sheriffa. Familia onekoa. Berak eman zien euskaldunei islandiar uretan ehiza egiteko baimena eta bera izan zen heriotzara zigortu eta haiek harrapatzeko tropa antolatu zuena. Beharbada arrantza egiteko baime-na eman izana ezkutatzeko asmoz.

Jon "Laerdi" Gudmunsson, pentasalari autodidakta eta aztia. Jazotakoaren narraztaile fidagarriena. Berak egin zuen gertaeren irakurketa kritikoa bere herrikideen portaera ankerra dudana jarritz.

Peter, pilotua. Martinen itsasontzian agintean bigarrena, ez zen bere kapitainaz fio. Jon Laerdi eta Peter lagun on izatera iritsi ziren, komunikazio oso oinarrizko baten bidez. Bidaiak amaiera tragikoa izango zuela asmatu zuen. ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osatu Eneko Lazkozek 2014an Leitzan botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Zure eskaerak egia esan*. Gaia: Etxarrin parte hartze prozesu bat jarri zen martxan. Apirilaren 13an galdeketa bat egin zen galdera honekin: "Nahi al duzu Euskal Herria independente bateko herritarra izan?" Lau hilabete pasa dira.

Apirilaren hamahirurako
jarri ziguten ____
bozkatokira denok ilaran
senidea ta ____.
Baiezkoa zen antolakuntzak
____ zuen erantzuna
parte hartzea ____ izan zen
ta emaitza ere txukuna
haundia izan zen denok
genuen harrotasuna. (bis)

Apirilaren hamahiru harrek
oso ____ gozoa
utzia zuen gure herrian
____ bat oso-osoa
baina oraindik asko falta da
inor ez da ____.
Horizontera begiratu ta
oraindik dago ____
herri gehiora zabaltzea da
eman ____ den pausoa. (bis)

Hitz egin nahian dagon ____
ezin da ____ mutu
ez eginakin baino hobe da
eginarekin ____.
Nahiz galdeketa gehio oraindik
ez ____ ezagutu
zabaldu behar da pixkanaka
denon artean ____
bukaera bat baino gehio izan
dadila _____. (bis)



www.guaixe.eus

H	E	R	R	I	A	L	A	P	I	S	U	G	M	P
A	E	N	P	V	U	P	A	O	S	U	A	L	M	T
A	A	U	O	A	B	I	A	P	U	N	T	U	L	U
D	E	G	S	N	H	H	A	M	L	V	D	C	V	M
I	J	E	U	B	N	L	J	A	B	V	Z	U	J	D
I	N	O	Z	O	A	E	A	G	G	T	Z	E	I	A
A	C	S	A	P	C	T	T	G	R	P	D	T	F	M
S	U	A	P	N	N	F	B	I	I	A	U	S	S	U
H	T	G	O	U	J	M	E	A	A	G	A	P	N	T
A	U	M	R	L	U	U	H	V	U	M	S	I	I	U
U	T	T	E	N	G	G	A	N	H	A	R	Z	A	L
N	S	J	A	C	E	S	R	T	Z	I	E	E	C	A
D	E	E	O	R	B	P	B	L	B	J	A	R	M	G
I	J	E	D	S	E	N	T	I	T	U	M	F	J	U
A	N	T	L	M	R	G	I	P	M	T	P	H	V	N
M	B	Z	R	E	G	U	N	A	T	S	B	J	C	A

Sudokua

Erraza

1		9	4		3			7
5		8		2	9			1
				1	8		3	
9	4	3				5		
6		1		4		9		3
		2				6	1	4
	9		2	5				
4			1	9			3	6
2		3		4	7			5

Zaila

3						5		8
	8		3				4	7
				9				1
	5	8	7		2			
				9		3	2	6
7				3				
4	9					7		3
8		1						4

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										



James Steakly-CC By SA

Goitik behera:

1. Zendu. Zainetan dabilena.
2. Obatu. Gehitzeko partikula.
3. Gabe. Dezimetro. 4. Omen.
5. Eratzun formako apaingarria, buruan jartzen dena.
6. Lur azpiko pasabide. 7. Herdoil.
8. Zu. Eraikin batek hartzen duen lur eremu.
9. Bururatu. Hegazti izena.
10. Pilota joko. Edo.

Ezker-eskuin:

1. Erru, akats. Zurezko zati luzea eta laua.
2. Ur-korrante natural. Hegaztien ume jaioberria.
3. Gehiegi. Ugaztun karraskari. Abereak uxatzeko.
4. Argazkiko zuhaitza. 5. Karez eraturako ore.
6. Letra izena. Bakoitzaren jokamolde. Kupela.
7. Baina. Ubeldura. 8. Goiburu. Egitekoa, arazoa.

Soluzioak

Apirilaren hamahirurako/jarri ziguten **eguna**/bozkatokira denok ilaran/senidea ta **laguna**/Baiezkoa zen antolakuntzak/**maite** zuen erantzuna/parte hartzea **haundia** izan zen/ta emaitza ere txukuna/haundia izan zen denok **sentitu**/genuen harrotasuna. (bis)/Apirilaren hamahiru harrek/oso **zapora**/gozoa/utzia zuen gure herrian/**egun** bat oso-osoa/baina oraindik asko falta da/inor ez da **inoza**/Horizontera begiratu ta/oraindik dago **lausoa**/herri gehiora zabaltzea da/eman **behar** den pausoa. (bis)/Hitz egin nahian dagon **herria**/ezin da **geratu** mutu/ez eginakin baino hobe da/**eginarekin damutu**/Nahiz galdeketa gehio oraindik/ez **ditugun** ezagutu/zabaldu behar da pixkanaka/dienon artean **estutu**/bukaera bat baino gehio izan/dadila **abiapuntu**. (bis)

8	3	1	6	2	7	9	7	5	4
4	6	2	8	5	7	1	3	6	6
7	6	5	1	3	4	9	8	2	2
1	4	7	9	8	3	2	6	5	9
6	9	5	8	5	4	1	8	7	6
6	5	8	7	6	2	4	1	3	3
5	7	6	4	6	9	8	3	2	1
2	8	9	3	1	5	6	4	7	7
3	1	4	2	7	6	5	9	8	8

Zaila

2	1	6	3	8	4	7	9	5	4
4	8	5	1	9	7	3	2	6	6
3	9	7	2	5	6	1	4	8	8
8	7	2	9	3	5	6	1	4	4
6	5	1	8	4	2	9	7	3	3
9	4	3	6	7	1	5	8	2	2
7	6	4	5	1	8	2	3	9	9
5	3	8	7	2	9	4	6	1	1
1	2	9	4	6	3	8	5	7	8

Erraza

Esker-eskuin: 1. Hoben. Ohol. 2. Ibai. Txita. 3. Lan. Kuit. Ux. 4. Lirondo. 5. Karere. 6. De. 8. Lema. Afera. **Goitik behera:** 1. Hiti. Odol. 2. Obal. Ere. 3. Barik. Dm. 4. Eñ. Marea. 5. Koroa. 6. Tunel. 7. Oxido. Uf. 8. Hi. Orube. 9. Otu. Eper. 10. Laxo. Ala.

Alejandro Cao de Benós. Ipar Korean mendebaldeko ahotsa



DANI BLANCO

Ipar Korearentzat lan egiten duen mendebaldar bakarra da Alejandro Cao de Benós (1974, Tarragona). Zehazki, Nazioarteko Harreman Kulturaletarako Delegatu Berezia. Anguitaren buruzagitzapeko Ezker Batuan militatu zuen gaztetan eta orain Koreako Lanaren Alderdiko kide da. Edonork ezin du jantzi bihotzean iltzatua daraman intsignia, bandera gorria Kim Il Sung eta Kim Jong Il lider zenduen erretratuekin, herriarentzat egindako lanaren kondekorazioa baita.

“Kapitalismoari ‘oihana’ deitzen diogu: jendeak jendea jaten duen lekua”



Oier Aranzabal
@zerdionk

Korear aita

“Nire lehen korear aita Koreako delegatua zen Madrilan, Espainiarekin harreman diplomatikorik ez zegoenean. Orain ministroa da errepublikan. Gaztetxo nintzela korearren filosofiak zur eta lur utzi ninduen eta filosofia hori herrialde osora orokortu daiteke. Oro konpartitzea, denok batera helburua erdiesteko”.

Ipar Korea herrialde zeharo itxia da, bizi duen egoera medio. Herrialdea inoiz zabalduko da?

Korea beti dago munduko beste herrialdeekin hartu-emanak izateko prest. Bere duintasuna eta subiranotasuna babesteko asmoz dago itxita eta ez beste herriak ez ezagutzeko edo harremanik ez izateko. Gutxika-gutxika, jendea geroz eta gehiago hurbiltzen zaigu eta aldaketarik izango da zentzu horretan. Gertatzen da jendeak “aldaketa” edo “irekitze” kontzeptuak askotan kapitalismora bihurtzearen esanahiarekin darabiltzala. Hori ez da nehoiz gertatuko. Nik uste, gehiago da mendebalde Korea hurbiltzen auzartzen ez dena, kontrakoa baino.

Nazioarteko Harreman Kulturaletarako ordezkaria zara eta Korea AEBekin gerran dago ofizialki. Beldurrik sentitu duzu inoiz?

Nire posizioak arazo mordoa ekarri dit, noski. Hainbeste dira Korearen inguruan hedatu diren gezurrak, ezen herrialdearekin lotzen den edozeren edo edonoren izena zikindua geratzen baiten. Arazoak

izan ditut txikitako lagun askorekin, uste baitzuten giltzaperatuko zituztela nire lagun izate hutsagatik. Hiru lantokitatik bota naute nire ideiegatik. Sistemaren alde tik sekulako presioa jasaten dut gainera, etengabe miatzen dituzte nire fardelak aireportuetan. Baina beldurra ez dut sekula sentitu. Izua aldean, hobe duzu ideien borroka alde batera uztea. Munduan beste inork lortu ez duen posiziora iritsi banaiz, beldurrik izan ez dudalako da.

Bi estatutan banatutako nazioa izanik bateratzea da Korearen helburu nagusietarik bat. Zer egoeratan da balizko bateratze hori?

Orain oso zaila da bateratzea. 2000tik 2007ra hainbat akordio sinatu ziren, bi sistema izango lituzkeen errepublika konfederala ardatz. Korearren gehiengoaren babesarekin. Ideologiekiko errespetutik abiatuta, gainontzeko guztian kolaboratzeko konpromisoa sinatu zen. Tamalez, Park Geun-hye, Park Chung-hee diktadorearen alabak, hori guztia suntsitu du. Azkena Kaesong industrialde partekatua iren xiera izan da, duela hiru hilabete inguru,



milaka iparraldeko zein hegoaldeko korearri lana ematen zion proiektua.

Banaketak, mugak eta batez ere gerrak eragin zuzena izan du kultura korearren. Nolako bilakaera eduki du bi estatuetan?

Iparraldean berezko kultura mantentzen da, atzerriko eraginik ez duena. Hegoaldean aldiz, AEBetako kulturak sekulako eragina izan du. K-Popa (Korean Pop) da nagusi: estatubatuar poparen bertsio bat, baina ekialdeko aurpegiekin, eta Seulek duen adierazpen kultural famatuena *break dance*-a da. Atera kontuak. Gazteek amerikar kulturaz den-dena dakite eta aldiz, korear kulturaz deus ez. Hizkuntza ere apurka galtzen ari dira, eta hori lazgarria da nazioarentzat. Hala ere, sinisten dugu oraindik batasuna posible dela.

Korearrak zer daki mendebaldeko kulturaz?

Ezagutzen dute On Kixote, eta Espainiako gudu zibila. Baina, batez ere, badaki nolakoa den "oihana". Guk kapitalismoari "oihana" deitzen diogu, "jendeak jendea jaten duen lekua". Korearrak Madrilera ekarri ditudanean, beldurtu egin izan dira. *Shock* bat da haientzat, ikusten baitute guztiagatik ordaindu beharra dagoela. Baita komunera joateko ere.

Korea bisitatzeko kazetari eta turistek etengabe gidari bat dute aldamenean. Gobernuak izugarriko kontrola ezartzen du kanpotarrekiko. Zergatik?

Bai, hala da. Guretzat Korea gure etxea da. Familia bat gara. Prostituziorik eta drogarik gabeko herrialdea da eta ez dugu halako arazoak etxean sartzerik nahi. Atzerritarrak gidari batekin doaz beti, ez baitakigu zeintzuk diren haien benetako asmoak. Hedabideek kazetariak infiltratzen dituzte, turista gisa, gero erreportaje sentsazionalistak publikatzeko. Horregatik hartzen ditugu neurriak.

Kazetariei aske ibiltzen uzteak, errealitatea kontrastatzeko ikuspegiak argitara emanaz, ez luke manipulazioa ebidentzian utziko?

Gutziz kontrakoa. Kazetariak, esan dudana bezala, monumentu batean argazkia ateratzen dute eta gero esaten dute kontzentrazio esparru batean egon direla. Kazetari hori ez da Piongiang hiriburutik atera, baina Nampo, Wonsan eta Haeju eskualdeez idazten du, CIAk esaten duena literalki koptatuz. Orain hori gertatzen bada, zer gertatuko da ateak zeharo zabalduz gero?

Demokrazia nola ulertzen da Korean?

Demokraziak esan nahi du herriak due-

"Korea bere duintasuna eta subiranotasuna babesteko asmoz dago itxita, ez beste herriekin harremanik ez izateko".

la boterea. Beren erregimena demokratizatzen duten herrialde kapitalistetan zeharo kontrakoa da. Korean herriak du produkzio bitartekoan eta jabeago guztiaren kontrola eta jendarte osoaren onurarako darabil, modu kooperatiboan. Hori oinarritzat hartuta, bost urtero Herri Asanblada Gorenerako 687 delegatuak hautatzen ditu herriak. Sufragio unibertsalaz, 17 urtetik gorako herritar guztiak dute hauteskundeotara aurkeztu edo bozkatzeko aukera.

Liderren uneoroko gurtzak eta 1948. urtetik estatuburu guztiak familia berekoak izatea demokrazia da?

Liderrekiko maitasuna, pasioa eta nonahiko lider gorenaren irudia korearren idiosinkrasiarekin bat dator. Korean familiaren batasunak berebiziko garrantzia du. Familiaren mikrokosmosa gizartearen makrokosmosera orokortzen da, non gure liderra baiten aita. Jendartearen batasuna ahalbidetzen duen grabitate zentroa. Figura paternalista dela ezin uka. Baina kontuz! Inolaz ere ez da autoritarioa. ■



“Asko gorroto zaitut” telebista saioa estreinatuko du ETB1ek

“Asko maite zaitut” programak lortu du erakustea euskaldunak gai garela norbait publikoki adierazteko barru-barrutik ateratzen zaizkigun maitasun sentimenduak. Orain erronka handiagoa hartuko du telebista publikoak: “Asko gorroto zaitut” saioarekin, urteetan ezkutuan gordetako ezin-ikusiak adieraztera animatuko dituzte herritarrak. “Maitasunarena baino askoz emankorragoa da hau”, adierazi dute programaren arduradunek. “Pentsa zenbat familia, el-

karte gastronomiko eta alderdi politiko dauden Euskal Herrian eta nola mantentzen diren. Adierazi gabeko gorroto pila bat dago hor, norbaitek ateratzeko aukera emateko zain”. Euskal kulturgingintzako zenbait eragilek dagoeneko eskatu dute programa ez dezatela emititu: “Kultura txikia da euskaldunona, horrelako zerbait emitituko balitz zer litzateke hurrengoa, bertsolaritza aspergarria dela publikoki adieraztea? Katastrofea litzateke!”.

SAREAN ARRANTZATUA

Gaueko ihesbideak



Gauzak argi, betiere



Manuel Vallsek onartu du Frantziako lan-erreforma broma dela

“Dena txiste bat zen” aitortu du Manuel Valls Frantziako lehen ministroak. “Betidanik gustatu izan zait komedia eta horregatik jarri genuen martxan lan erreformaren kontu hau, grazia pixka bat eragiteko. Frantziako hiritarroi umorea falta zaigula leporatzen digutenei umore

errepublikarra zer den azaldu nahi izan diegu”. Adierazpen harrigarrien ondoren kazetariak galdetu dute ea lan erreforma erretiratuko duten: “Kar, kar, kar, inola ere ez!” erantzun du Vallsek. “Bere antza dudan arren, oraindik ez naiz Mr. Bean. Nire bromek ez dute irri eginarazten!”.



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTZALETASUNA

EKONOMIA SOZIALA

ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilerro ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.




Ekonomia Sozianean oinarritutako enpresa gara. Langileok gara jabeak eta egitura horizontala eta parte hartzailea dugu. Eragiten jarraitzeko, komunitatea indartu eta kolektiboki jardun nahi dugu, ARGIA osatzen dugun guztion elkartetik eta inplikaziotik abiatuta.

MAIATZEKO ZOKKETAK



LANKI ikertegiko materiala
(5 saski)

Lanki
lanki.coop



Ondarroako Arrigorri ostatuan
egonaldia 2 pertsonarentzat

Arrigorri
arrigorri.eus



Dabilen harriari goroldiorik ez
(5 liburu)

Joxemi Zumalabe
joxemizumalabe.eus



REAS (Ekonomia alternatiboa eta
solidarioaren sarea) (2 saski)

REAS
www.economiasolidaria.org

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea



gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.